

TOKIKO II. PROTOKOLOA, ANTSOAINEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN JARDUNA KOORDINATZEKO



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala



IZENBURUA

TOKIKO II. PROTOKOLOA, ANTSOAINEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN JARDUNA KOORDINATZEKO

BULTZATZAILEA

Antsoaingo Udala. Berdintasun Zerbitzua.

FINANTZATZAILEA

Lehendakaritza, Gorteekiko Harremanak eta Berdintasun Ministerioa, Berdintasunerako Estatu Idazkaritzaren bidez. Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna

LAGUNTZA TEKNIKOA

IBAIN Consultoría, S.L.

PROTOKOLOA PRESTATZEN ARITU DIREN BALIABIDE PUBLIKOEN ZERRENDA (ANTSOAINEN DIHARDUTENAK).

- ▶ Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzua
- ▶ Antsoaingo Udaleko Udaltzaingo Zerbitzua
- ▶ Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- ▶ Genero-indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldea Iruñerrian eta Nafarroako Iparraldean.
- ▶ Antsoaingo Osasun Etxea.
- ▶ Antsoaingo Osasun Mentaleko Zentroa.
- ▶ Foruzaingoa.
- ▶ Guardia Zibila.

2020ko MARTXOA

AURKIBIDEA

1.	AURKEZPENA	3
2.	ANTSOINGO UDALAREN ERABAKIA	6
3.	PROTOKOLOAREN HELBURUAK	12
4.	EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA PROTOKOLOAN.....	14
5.	PROTOKOLOAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRA EZARRIA DAGOEN EREDUA	17
6.	JARDUKETA PROZEDURAK ESPARRUZ ESPARRU.....	21
	1.GIZARTE ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA.....	24
	2.POLIZIA ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA.....	32
	3.OSASUN ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA.....	39
7.	ESPARRUKA KOORDINATZEKO GAKOAK.....	46
8.	UDAL KOMUNIKAZIOA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN	50
9.	PROTOKOLOA KUDEATZEKO SISTEMA.....	55
10.	PROFESIONALENTZAKO BALIABIDEEN MAPA	62
	SIGLEN, AKRONIMOEN ETA BESTE ERREFERENTZIA BATZUEN ZERRENDA	64

1. AURKEZPENA

1. AURKEZPENA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da eta milioika emakume eta neskatoren bizitza baldintzatzen du mundu osoan. Indarkeria hori ere Antsoainen gertatzen da. Hori dela eta, Udalak urteak daramatza asmo osoz lanean emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko, eta afera koordinaziopean eta era integralean moldatzen laguntzeko.

Lan edo esku-hartze hori egituratze aldera, Antsoaingo Udalak hainbat lan-mekanismo jarri izan ditu abian, bi xede gogoan: batetik, halako harreman egonkorra egin nahi izan da emakumeen aurkako indarkeria artatzearekin lotura duten baliabideen artean, hots, udalerrian dihardutenen artean; eta bestetik, jardunerako jarraibide bateratuak sortu nahi izan dira emakumeen aurkako indarkeriatik bizirauten duten biktimen segurtasuna areagotzeko, berriro ere biktima ez bihurtze aldera. Horren haritik, komeni da hiru mugarri nabarmentzea udalak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean darabilen esku-hartzean. Esku-hartzea mailaka ezarri da eta aurrerapena ekarri du Antsoaingo emakumeen aurkako indarkeriaren arreta-eredura.

- ▶ **Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. udal protokoloa**, 2011n onetsitakoa. Gizarte, polizia, osasun, hezkuntza eta berdintasun arloko baliabideak koordinatzeko eta elkarlanerako esparrua izan da, bai udal baliabideen artean, bai udalerrian diharduten baliabideen artean.
- ▶ 2018an, **Antsoaingo Udaltzaingoa VioGen Sistemari** atxiki izana, hau da, Osoko segimendurako sistema bat da genero-indarkeria kasuetarako, Barne Ministerioko Segurtasunerako Estatu Idazkaritzak abian jarria; eta halaber, **lankidetzako protokolo bat sinatu izana, Antsoaingo udalerrian genero-indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta poliziala emateko**.
- ▶ 2018. urtean, **tokiko protokolo bat egin izana, festa guneeetan eraso sexistak prebenitzeko eta biktimak artatzeko**; berariazko prozedura bat da, udalerriko festa eta aisia guneeetan emakumeen aurka gertatzen den indarkeriazko adierazpen horri erantzuteko.

Azaldutako mekanismoek koordinazioak duen garrantzia taxutzeko bidea ematen dute, emakumeen aurkako indarkeriari herrian eman beharreko erantzuna integrala, sistematikoa eta hainbat arlotakoa izan dadin; beraz, eraginkorra izan dadin. Koordinazioari eusten dioten mekanismoak estatikoak ez direnez, eta azken urteotan, emakumeen aurkako indarkerian izaniko arauen aurrerapenetara egokitzuz joan behar izan dutenez (legeak, politikak, akordioak eta protokoloak), bai eta aurrerapen tekniko eta sozialetara ere –bereziki, **Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea**¹–, ondu egin da **Tokiko II. Protokolo hau, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduna koordinatzeko**. Protokolo honek, beraz, eguneratu eta osatu egin du Antsoaingo Udalak 2011. urtean egindako hura. Gainera, udalerririk emakumeen aurkako indarkeriaren kontra darabilen jarrera proaktiboa adierazteaz gain, sinatzaileek -eskubideetan oinarrituriko ikuspegitik- arreta hobetzearekin duten ardura ere erakusten du; bereziki, emakumeek eta neskatok beldurrik gabe eta indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea.

¹ Aurrerantzean, LFVM

2. ANTSOAINGO UDALAREN ERABAKIA

2. ANTSOINGO UDALAREN ERABAKIA

Antsoainen, 2020ko ekainaren 24an

BILDURIK:

Ander Andoni Oroz Casimiro Jn., Antsoingo Udalaren izenean.

Francisco Javier Vilchez López, Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen izenean,

Eva Istúriz García And. Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren izenean.

Monserrat de la Fuente Hurtado And., Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren izenean.

Mónica Magno Villanueva And., Antsoingo Osasun Etxearen izenean.

Jose Antonio Agüero Goñi Jn., Buru-osasunerako Antsoingo Zentroaren izenean.

Jesús Solabre Goñi Jn., Nafarroako Foruzaingoaren izenean.

Victor Manuel Obarrio Sánchez Jn., Guardia Zibilaren izenean.

Jesús M^a González García Jn., Polizia Nazionalaren izenean.

AZALDU DUTE:

- 1 Emakumeen aurka egiten den indarkeria, emakumeak direnez gero, egiturazkoa da eta giza eskubideen urraketa larria da. Indarkeria hori herrialde eta testuinguru guztietan gertatzen da, bai eta egoera ekonomiko, sozial eta kultural guztietan ere, patriarkatuan oinarritua baitago; hau da, sistema horrek azaldu, eraiki eta mantendu egiten ditu gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman asimetrikoak eta hierarkikoak (gizonezkoen nagusitasuna eta emakumezkoen menpekotasuna).
- 2 Emakumeen aurkako indarkeriak hainbat adierazpen ditu. Adierazpen horietako batzuk dira bikote barnean edo bikote ohian dagoen indarkeria, feminizidioa, emakume eta neskatuen salerosketa, sexu-esplotazioa, gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua, emakumezkoen genitalen mutilazioa, eta era berean, emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen bestelako indarkeria oro, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.
- 3 Emakumeen aurkako indarkeria motek –edozein indarkeria adierazpenak– kalte edo sufrimendu fisikoak, sexualak, psikologikoak eta/edo ekonomikoak eragiten dituzte biktima guztiengan.
- 4 Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak ezarri bezalaxe, biziraun duten emakumeak emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak dira, jasandako indarkeria prozesua gainditzeko oneratze prozesuari ekin diotenak. Indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere emakumeen aurkako indarkeriaren zuzeneko biktimak dira, indarkeriazko ingurunean bizi baitira.

- 5 Emakumeen aurkako indarkeriari aurre eginen bazaio, genero ikuspegian oinarritutako esku-hartzea behar da, kalitatezkoa, indarkeriaren sorburuetan eta ondorioetan eraginen duena, eta kontuan hartuko duena emakumeen aurkako indarkeriak eragin ezberdinak sortzen dituela biziraun duten emakumeen bizitzetan eta haien seme-alaben bizitzetan.
- 6 Hainbat faktorek areagotu dezakete indarkeria hori jasaten duten emakumeen egoera ahula, eta are luzeagoak eta hauskorragoak egin kaltea konpontzeko prozesuak. Hauek dira: adina, hizkuntza ez jakitea, enpleguaren prekarietatea, autonomia ekonomikorik eza, pobrezia, desgaitasuna, emakume migratuen egoitza-egoera administratiboa, seme-alabak izatea, bai eta bestelako aldagai eta egoerak ere.
- 7 Antsoaingo Udalak udalerrian emakumeen aurka gertatzen den indarkeriari behar bezalako prestasunez erantzuteko erantzukizuna dauka, behar diren mekanismoak sustatuz esparru guztietatik egiten den esku-hartzea koordinatzeko eta biziraun duten emakumeak eta haien seme-alabak berriro biktimak bilakatzea eragozteko.

Toki, autonomia, estatu, Europa eta nazioarte mailako araudi eta programa asko ezarritakoarekin bat, Erakunde Publikoek esku-hartze koordinatua sustatzeko erantzukizuna dute, jarduketa-prozedura homogeenak ezarrita, esparru guztietatik arreta eta babes osoa bermatze aldera, hau da, gizarte, polizia, osasun, hezkuntza, lege eta epailetza esparruetatik. Araudi hori zabala eta hainbat mailatakoa denez, ondoren nabarmenena aipatuko da Protokolo honen xederako:

→ TOKI ESPARRUKO ARAUDIA

Antsoain Udalaren ordenantza, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerako (2019)

→ NAFARROAKO ARAUDIA

Foru Legeak:

17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzkoa.

14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.

Bestelako araudia:

Erakundeen arteko III. Akordioa, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko (2017).

Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakume eta neskatuen kasuak koordinatzeko eta jarduteko Protokoloak (2016).

Emakumezkoen mutilazio genitalari aurrea hartzeko eta aurre egiteko Protokoloa (2013).

Autonomia mailako beste erreferentzia esparru bateko informazioa:

Udaletako Berdintasun Alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea. Nafarroako Gobernua (2015).

→ ESTATUKO ARAUDIA

Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna (2018).

4/2015 Legea, apirilaren 27koa, delituaren biktimaren estatutuari buruzkoa.

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako.

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurri buruzkoa.

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituena.

→ EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO ARAUDIA

Europako Kontseiluko hitzarmena, emakumeen kontrako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horien kontra borrokatzeko. Istanbulko Hitzarmena (2011).

Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda (Garapen Jasangarrirako Helburuak) (2015).

Beijingo mundu-konferentzia emakumeari buruz (1995) eta Beijingo Adierazpena eta Ekintza Plataforma, New Yorken berrikusia eta berretsia 2015ean (Pekin+20).

Emakumeen aurkako Bazterkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa (CEDAW) (1979koa, eta Estatuak 1983an berretsia) eta horri dagokion Hautazko Protokoloa (2000).

- 8 Araudian izaniko aurrerapausoek nahiz emakumeen aurkako indarkeriaren arloan gertatu diren aurrerapen tekniko eta sozialek eraginda, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko I. udal protokoloa eguneratu eta hobetu behar izan da, 2011ko azarotik 2019ko azarora bitarte indarrean egondakoa.

HITZARTU DUTE:

Lehena. Tokiko II. Protokolo hau sinatzea, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduna koordinatzeko, udal koordinaziorako mekanismo berria baita. Horren bidez, udalerrian diharduten baliabide guztiek sostengua eman egingen diete emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun dutenei eta haien seme-alabei oso-osoko arreta emateko egiten diren jarduketei. Protokolo honek behar diren baldintzak sortzeko bidea ematen du huraxe sinatu duten erakundeen eta eragileen arteko lankidetzak egokirako, esku-hartzeko tresna bateratuak eta kalitatezkoak ezarrita, betiere bakoitzari dagozkion eskumenak errespetatuta.

Bigarrena. Beharrezkoak diren baliabide materialak, teknikoak eta giza baliabideak bideratzea, protokoloa indarrean jartzeko, aplikatzeko eta horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko; xede horrekin deitutako bileretan parte hartzea, eta urtero ezartzen diren lan programekiko konpromiso aktiboa hartzea.

Hirugarrena. Protokoloan parte hartzen duten pertsonen gaikuntza ematea berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeriaren arloetan, prestakuntza ekintzak sustatuz edota pertsona horiek hala Antsoaingo Udalak nola beste erakunde publiko batzuek deitutako prestakuntza ekintza edo ibilbideetan parte hartzea ahalbidetuz. Profesionalak emakumeen aurkako indarkerian gaitzea Protokoloa hau aplikatzeko bermea da.

Laugarrena. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko jarduketa apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legea (Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egitekoa) egokitzea, han ezarritako printzipio gidariei, emakumeen kontrako indarkeriaren kontzeptualizazioari eta Nafarroako Foru Komunitaterako arau horrek ezartzen duen esku-hartze ereduari dagokienez, Antsoaingo udalerrirako Protokoloa honetan zehazten dena.

Bosgarrena. Protokoloan ordezkaturako alde bakoitzak, bere eskumenen esparruan, konpromisoa hartzea, batetik, kalitatezko baliabide eta zerbitzu eskuragarriak jartzeko biziraun duten biktimen eskura; eta, bestetik, haien osoko arreta bermatzeko, guztiz oneratu arte.

Seigarrena. Tokiko Koordinazio Mahai (TKM) bat sortuko da, analisirako eta lan egiteko kide anitzeko organo gisara, helburu nagusi hauekin: protokoloari eraginkortasuna ematea, protokoloa ezartzea eta horren jarraipena eta ebaluazioa egitea, eta era berean, Antsoainen emakumeen aurkako jardunean ardura duten erakundeen arteko koordinazioa eraginkorra izatea. Mahaia lan esparru tekniko da eta Hitzarmen hau sinatu ondoren osatuko da, indarrean sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean.

Tokiko Koordinazio Mahaiak, gutxienez, kide hauek izanen ditu:

- ▶ Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzua
- ▶ Antsoaingo Udaleko Udaltzaingo Zerbitzua
- ▶ Antsoain, Berriozar, Berriobeiti, Itza eta Txulapaingo Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
- ▶ Genero-indarkeriaren biktimei oso-osoko arreta emateko taldea Iruñerrian eta Nafarroako Iparraldean.
- ▶ Antsoaingo Osasun Etxea.
- ▶ Antsoaingo Osasun Mentaleko Zentroa.

Antsoaingo Udaleko Berdintasun zinegotzia eta Berdintasun teknikaria Tokiko Koordinazio Mahaiko burua eta idazkaria izanen dira, hurrenez hurren. Tokiko Koordinazio Mahaian dagoen alor edo erakunde bakoitza pertsona baten bidez egonen da Mahaian ordezkaturak. Hitzarmenaren sinatzaileek egokitzat jotzen dituzten pertsonak (nahi adina) izendatzen ahalko dituzte Tokiko Koordinazio Mahaiko kide, helburuak ahalik eta hobekien betetze aldera.

Zazpigarrena. Hona hemen Tokiko Koordinazio Mahaiaren eginkizunak:

- a) Protokoloaren eta esparrurako lan-prozeduren ezarpena ezagutu eta erraztea, bi urterako lan-planetatik abiatuta.
- b) Elkarrekin jarduteko irizpideak ezartzea, kasuak garaiz atzemateko eta, ahalik eta lasterren eta eraginkortasunez, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako sisteman diharduten beste eragile espezializatuengana bideratzeko.
- c) Koordinazioan izan daitezkeen gorabeherak identifikatzea eta behar diren zuzenketak proposatzea edo egitea.
- d) Nafarroako Berdintasunerako Institutuari jakinaraztea zer-nolako gorabeherak identifikatu diren bai Protokolo hau Antsoaingo udalerrian betetzean, bai, era zabalagoan eta orokorragoan, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakundeen arteko III. Akordioa betetzean. Tokiko Koordinazio Mahaiak, era berean, gorabeherak arrazoitu egin beharko ditu, haien berri emateko, eta gutxienez, Tokiko Koordinazio Mahaiko kideen hiru laurdenen babesa izan (mahaian dagoen baliabide bakoitzak boto bat izanen du).
- e) Emakumeen aurkako indarkeriak Antsoainen duen eragina urtero jakin eta aztertzea.

- f) Urtero, informazio bateratua ematea, TKMan ordezkaturiko esparru bakoitzean emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egiten den jardunaz, eta era berean, informazio hori laburbilduta jasoko duen urteko txosten globala onartzea.
- g) Protokoloaren berri emateko ekintzak egitea, hala barnekoak, baliabide bakoitzean, nola kanpo-ekintzak, bi urterako lan-planetatik abiatuta.
- h) Protokolo honen baitan egindako lanari buruzko txosten bat bidaltzea urtero Hitzarmen hau sinatu dutenei, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Antsoaingo Udaleko Gizarte Gaien eta Elkarbizitza Batzordeari, Antsoaingo emakume talde, talde feminista eta herritarrei, eta era berean, udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren arloan garrantzitsutzat jotzen diren beste erakunde batzuei.

Zortzigarrena. Tokiko Koordinazio Mahaiak urtean ohiko bi lan bilera egingen ditu, gutxienez. Gainera, bilera bereziak egiten ahal ditu, mahaiburuak edo kideen bi herenek eskatuta. Horrelakoetan, idatziz eskatu beharko da eta, bertan, aztertu beharreko gaien zergatiak erantsi. Bilera eskatu eta ondoko hamabost egunetan deituko du mahaiburuak bilera berezia. Gai zerrendan, eskatu diren puntuak sartuko dira nahitaez, eta Lehendakaritzak beste batzuk ere eranstean ahal ditu.

Bederatzigarrena. Tokiko Koordinazio Mahaiari laguntza eta bestelako iritziak emateko, lantalde teknikoei deitzen ahalko zaie. Lantalde horiek Mahaiak ezarritako lan programen eta Protokolo honetan hautemandako premien arabera sortuko dira.

Hamargarrena. Tokiko Koordinazio Mahaiak txosten bat prestatu beharko du urtero emakumeen aurkako indarkeriak Antsoainen izan duen eraginaz eta indarkeriaren aurkako jardunaren emaitzez; halaber, bi urterako lan planak diseinatu beharko ditu protokolo hau abian jartzeko.

Hamaikagarrena. Antsoaingo Udalak, udaleko berdintasun zerbitzuaren bidez, berariazko aurrekontu bat bideratuko du urtean Protokoloa abian jartzeko. Bi urterako planetatik abiatuta, Protokolo honen erakunde sinatzaileek egiten dituzten ekintzak bakoitzaren aurrekontu-partiden kargura joan dira.

Hamabigarrena. Protokolo honek sinatzen den egunetik hartuko du indarra, eta indarraldi mugagabea izanen du.

Hamahirugarrena. Urtero berrikusiko da eta, sinatzen den unetik aurrera, lau urtetik behin, kanpo ebaluazioa egingen zaio.

Eta alde guztiak aurreko guztiarekin ados direla frogatzeko, Hitzarmen hau sinatu dute, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

**ANTSOAINGO UDALAREN
IZENEAN**

**ANTSOAIN, BERRIOZAR,
BERRIOBEITI, ITZA ETA
TXULAPAINGO GIZARTE
ZERBITZUEN
MANKOMUNITATEAREN IZENEAN**

Ander Andoni Oroz Casimiro Jn.

Francisco Javier Vílchez López Jn.

**NAFARROAKO
BERDINTASUNERAKO
INSTITUTUA**

**OSASUNBIDEA-NAFARROAKO
OSASUN ZERBITZUAREN IZENEAN**

Eva Istúriz García And.

Monserrat de la Fuente Hurtado And.

**ANTSOAINGO OSASUN ETXEAREN
IZENEAN**

**BURU-OSASUNERAKO ANTSOAINGO
ZENTROAREN IZENEAN**

Mónica Magno Villanueva And.

José Antonio Agüero Goñi Jn.

**NAFARROAKO
FORUZAINGOAREN
IZENEAN**

GUARDIA ZIBILAREN IZENEAN

Jesús Solabre Goñi Jn.

Victor Manuel Obarrio Sánchez Jn.

**POLIZIA NAZIONALAREN
IZENEAN**

Jesús M^a González García Jn.

3. PROTOKOLOAREN HELBURUAK

3. PROTOKOLOAREN HELBURUAK

Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 4/2015 Foru Legearen 20. artikulua arabera: "Foru Administrazioak detekzio, jarduketa eta deribazioarako protokolo bereziak prestatuko ditu bere lurralde esparruko toki entitateekin elkarlanean, eta prozesu horietan dituen inplikazioa eta eginkizunak kontuan hartuta". Arauak, halaber, haxe xedatu du: protokolo horietan ildo batzuk ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinen aurrean lan egiteko. Testuinguru horretan, ondoren datozen ataletan dago zehaztua Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduna koordinatzeko protokoloa.

→ HELBURU OROKORRA

Genero-ikuspegian oinarritutako esku-hartze koordinatua, espezializatua, integrala eta kalitatezkoa ahalbidetzea, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten baliabide publiko guztien aldetik.

→ BERARIAZKO HELBURUAK

- ▶ Koordinazioarako eta elkarlanerako bitarteko egonkorrak sortzea Antsoaingo Udalaren eta emakumeen aurkako indarkeriari erantzun integrala emateko sistema publikoan erantzukizuna duten udalez gaindiko beste erakunde batzuen artean.
- ▶ Antsoainen, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzen dutenen arteko komunikazioa hobetzea (prebentzioa, detekzioa, arreta, babesa eta oneratzeko).
- ▶ Informazio benetakoa, eguneratua eta alderagarria izatea eskura, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriak duen eragina eta esku-hartzearen emaitzak aztertzeke eta, era berean, haren kontrako jardunean behar diren hobekuntzak identifikatu eta bideratzeko.
- ▶ Arreta bateratzea eta esku-hartzea Antsoaingo egoerara egokitzea, emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duten biktimak berriro biktima bilakatzea eragotzita.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkerian egiten den esku-hartzea profesionalizatzea, arreta-ereduak biziraun duten biktimak ahalduz lagundu dezan.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriari arbuio publikoa erakustea, eta herritarrak sensibilizatzea egoera horrek Antsoainen duen eraginaz, betiere haren gainean diren aurreiritzi eta estereotipo matxista eta misoginoak ezabatuta.

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA PROTOKOLOAN

4. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTZEPTUALIZAZIOA PROTOKOLOAN

Protokolo honek bere egin eta erabiltzen du emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Legearen terminologia. Horrenbestez, emakumeen kontrako indarkeriaren tratamendua (emakumeen aurkako indarkeriaren definizioa, indarkeria motak eta agerpenak, emakumeen aurkako indarkeriari dagokion informazioaren analisia, etab.) bat dator hala foru arauarekin, nola aplikagarria zaion nazioarteko beste araudi batekin; Istanbulleko Hitzarmenarekin, hain zuzen ere. Ondoren, protokoloan erabiltzen diren definizio batzuk bilduko dira:

- ➔ **Emakumeen aurkako indarkeria edo genero-indarkeria:** Emakumeen kontrako indarkeria da emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen dena edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekar dezakeena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioak barne hartuta, bizitza publikoan nahiz pribatuan gertatzen direnak. Neska adingabeak ere emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak dira.
- ➔ **Indarkeriatik biziraun dutenak:** Indarkeriatik biziraun dutenak emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak dira, jasandako indarkeria prozesua gainditzeko oneratze prozesuari ekin diotenak. Indarkeriaren emakume biktimen seme-alabak indarkeria horren zuzeneko biktimak eta/edo biziraun dutenak dira.
- ➔ **Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak:** Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima dira bortxazko ekintzen ondorioak zuzenean pairatzen dituzten emakumeak, bai eta indarkeriazko ingurunean bizi diren seme-alabak ere, egoera ahulean egoteagatik indarkeria hori zuzenean jasaten dutenak.
- ➔ Honakoak jotzen dira emakumeen aurkako **indarkeria motatzat:**
 - ▶ **Indarkeria bikotean edo bikote ohian.** Indarkeria fisikoa, psikologikoa, ekonomikoa edo sexuala, bikotekide duen edo izan duen gizonak edo berarekin antzeko harreman afektiboak izan dituenak, batera bizi direla nahiz ez, emakumearen kontra erabilitakoa, indarkeriazko ingurunean bizi diren haurrengan duen eragina barne hartuta.
 - ▶ **Sexu-indarkeriaren agerpen ezberdinak.** Emakume eta nesken kontrako sexu-indarkeriak bere baitan hartzen ditu sexu erasoa, sexu abusua, sexu jazarpena lanean edo hezkuntzan eta sexu abusua familian, komunitatean, hezkuntzan, lanean eta esparru publikoan.
 - ▶ **Feminizidioa.** Bikotean edo bikote ohian eginiko homizidioak, eta generoak eragindako diskriminazioan oinarritutako indarkeria erakusten duten beste krimen batzuk, hala nola sexu-indarkeriarekin loturiko hilketak, prostituzioaren eta emakumezkoen salerosketaren eremuko hilketak, ohoreagatiko hilketak, neskatoen infantizidioa eta ezkonsariagatiko hilketak.
 - ▶ **Emakumeen eta neskatoen salerosketa.** Emakumeak eta neskak erakarri, eraman, lekuz aldatu, hartu edo jasotzea, barne hartuta pertsona horien gaineko kontrola trukitzea edo eskualdatzea, mehatxuekin edo indarra edo bestelako hertsamen bideak

erabiliz, bahituz, iruzur eginez, engainatuz, botere abusuaren bidez edo egoera ahul batez baliatuz, edo emakume edo nesken gaineko kontrola duen pertsonaren baimena lortzeko dirua edo onurak emanez edo jasoz, helburua delarik sexu-esplotazioa, laneko esplotazioa edo menpekotasunezko ezkontza.

- ▶ **Sexu-esplotazioa.** Emakumeak eta neskak prostituzioan, sexu morrontzan edo beste sexu zerbitzu batzuetan aritzetik -ekintza pornografikoak edo material pornografikoak egitea barne- finantza onurak edo bestelakoak lortzea, bortxaz, mehatxuaz, engainuaz edo nagusitasunezko egoera batez edo biktimaren egoera ahulaz baliatuz.
 - ▶ **Gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua.** Baimen libre eta erabatekorik izan ez duen ezkontza, hirugarrenen arteko akordio baten emaitza izan delako, emakumearen borondatea kontuan hartu gabe, edo mehatxupearan edo bortxaz egiten delako, edo baimena emateko legez aurreikusitako adina baino gazteagoa delako emakumea.
 - ▶ **Emakumeen genitalen mutilazioa.** Emakumearen genitalak osorik edo zati batean kentzea dakarren edo ekar dezakeen edo haietan lesioak eragiten dituen edozein prozedura, emakumearen edo neskatoaren baimena izanda ere, berariazkoa nahiz esan gabekoa.
 - ▶ Emakumeen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kalte dezakeen beste edozein indarkeria mota, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko nahiz Foru Komunitateko araudian aurreikusirik dagoena.
- Emakumeen kontra erabilitako indarkeria mota horiek, kalte edo oinaze fisikoak, sexuala edo psikologikoa eta/edo ekonomikoa eragiten dute, ekintza hauen ondorioz, besteak beste:
- ▶ **Indarkeria fisikoa:** Emakumearen gorputzaren kontrako indarkeriazko edozein ekintza, kalte fisikoa edo mina eragiten duena edo eragin dezakeena.
 - ▶ **Indarkeria psikologikoa:** Edozein jokabide, ahozkoa nahiz ez ahozkoa, emakumearengan oinaze, gutxiespen, bakartze motaren bat edo askatasuna mugatzea eragiten duena, hala nola mehatxuak, derrigortzeak, umilazioak edo laidok, menpekotasuna eskatzea, jazarpena, hertsapena edo irainak.
 - ▶ **Indarkeria ekonomikoa:** Emakumearen eta haren seme-alaben ongizate fisiko nahiz psikologikorako baliabideak nahita eta legez justifikatu gabe kentzea, edo bikotearen esparruan bienak diren baliabideak erabiltzeko diskriminazioa.
 - ▶ **Indarkeria sexuala:** Onartu/baimendu gabeko edozein sexu ekintza, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne.

5. PROTOKOLOAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRA EZARRIA DAGOEN EREDUA

5. PROTOKOLOAN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRA EZARRIA DAGOEN EREDUA

Protokolo honen sinatzaileek bultzaturiko jarduketak 14/2015 Foru Legearen ikuspegiarekin bat eginen dira. Lege horretan ezarritakoaren arabera, emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko lana printzipio hauen zuzendaritzapean egin behar da: **giza eskubideen errespetua, babesa eta sustapena, "arreta egokia", genero ikuspegia eta bitartekaritzaren berariazko debekua, diskriminazioaren debekua, diskriminazio anitzari arreta ematea, erantzun integrala eta koordinazioa, begirunea eta birbiktimaziorik eza, erantzukizuna eta partaidetza**. Printzipio horiek aintzat hartzeak eraldatu egiten du Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzen duten baliabideen arreta eredua. Horrenbestez, esparru guztietako baliabide guztien xede nagusia da eredua lagungarria izatea emakumeak eta neskatok ahalduntzeko.

14/2015 Foru Legearen oinarrian diren printzipioak protokolo honetan zehazteak, eta esku-hartze profesionalaren xedea emakume eta neskatoen ahalduntzea izateak, esan nahi du protokolo honetan parte hartzen duten entitate guztiek eraturako **arreta ereduak** bere egiten dituela ondoren ageri diren xedapenak, hots, aurrerago jarduketa esparru guztietarako zehazturik daudenak.

ANTSOAINEN INDARKERIATIK BIZIRAUN DUTENEN AHALDUNTZEA ARRETA EREDUAREN BIDEZ

- ▶ Esparru guztiak emakumeen eta haien seme-alaben Giza Eskubideak errespetatuz, babestuz eta sustatuz arituko dira; osasunerako eskubidea eta indarkeriarik gabeko bizitzarako eskubidea, batez ere.
- ▶ Esku-hartzeak integrala, koordinatua eta azkarra (lehen arretan, batez ere) izan beharko du, bai eta pertsonalizatua ere.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duten biktimendako arreta espezializatua izanen da; horrenbestez, profesionalek behar den gaikuntza izanen dute protokolo honek lanerako aurreikusi duen esku-hartze eredua gauzatzeko.
- ▶ Baliabide guztiek eskaintzen duten arretan, biziraun duten biktima guztien segurtasuna bermatuko da, eta ahalbidetuko da biktima horiek arriskuan ez egotea ezta arriskuan jartzea ere.
- ▶ Kontuan hartuko da biziraun duten biktimek adierazten duten arriskuaren pertzepzio indibiduala eta subjektiboa.
- ▶ Biziraun duten biktimak eta horien seme-alabak berriro indarkeriaren biktima izatea eragotziko da; horretarako, haien anonimotasuna bermatuko da, haien intimitatea ahalbidetuko da arreta guneean, eta baliabide eta zerbitzu publikoetara jotzeko edota horietan parte hartzeko tramiteak azkartu eta murriztuko dira.
- ▶ Salaketa aurkezteko erabakia emakumeena da eta horri buruz duten iritzia errespetatu beharko da. Emakumeei informazio zehatza emanen zaie salaketa jartzeak haien prozesuan dituen ondorioei buruz, betiere salaketa jarri aurretik. Xedea izanen da informazio hori Emakumeendako Arreta Juridikorako Zerbitzuak ematea.

- ▶ Ahal dela, emakumeei bakarka emanen zaie arreta, komunikazioa erraztu, intimitatea errespetatu eta biziraun duten biktimen eta horiekin batera dauden profesionalen artean konfiantzazko harremanak sortzeko egokiak izanen diren tokietan.
- ▶ Kontuan hartuko da emakumeek seme-alabekin batera joan daitezkeela zerbitzu horietara eta, horrenbestez, toki egokiak prestatu behar direla, emakumeei arreta ematen zaien tokietatik bereizita.
- ▶ Aintzat hartuko da, orobat, emakumeek normalki ez dutela berariaz adierazten indarkeria jasaten ari direla, zailtasunak izan ohi dituztela indarkeriari buruz hitz egiteko edota izendatzeko, eta sarri askotan ez direla ohartzen indarkeria jasaten ari direla. Hala, indarkeria dagoelako susmorik bada, egoera hori hitzetan jartzea errazten duten galderak baliatuko dira, eta kasuari etengabeko jarraipena eginen zaio, beste adierazle batzuei erreparatuz (aurrekari pertsonalak eta bizitza-historia, kontsultaren zioa, lesioak errepikatzea, lesioen eta horien jatorriaren arteko kongruentziarik eza, ahoz bestelako portaera, etab.), protokolo honetako lan-prozedura bakoitzean zehaztu bezalaxe.
- ▶ Protokoloa sinatzen duten entitate guztiek antolatuko dute arreta, profesionalak emakumeen aurkako indarkeria kasuei behar duten denbora guztia eman ahal izateko moduan eta prozesu bakoitzaren izaera ez-lineala eta paregabea errespetatuz.
- ▶ Esku-hartzearen arlo desberdinetatik ematen diren mezuak elkarren artean osagarriak izateko ahaleginak egin beharko dira, espezializazio esparru bakoitzak marraztutako ildoak errespetatuz, eta emakumeengan itxaropen faltsurik sortu gabe.
- ▶ Esku-hartzearen barruan, emakumeen aurkako indarkeriak eragiten dituen erruduntasuna, beldurra, lotsa eta estigma jorratuko dira, haien autoestimua eta autonomia indartzeko eta emakumeek beren burua zaintzeko gaitasuna sustatzeko.
- ▶ Biktimaren eta erasotzailearen arteko bitartekaritza debekatuta dago emakumeen aurkako indarkeria kasuetan; horrenbestez, bikote terapia, familia bitartekaritza edo xede horrekin egiten den bestelako esku-hartze estrategiak ez dira hartuko protokoloaren barruko arreta ereduaren partetzat.
- ▶ Esku-hartze profesionalaren abiapuntua emakume guztien berdintasuna aitortzetik abiatuko da; hortaz, debekatuta dago jarduketetan zuzenean edo zeharka generoan oinarritutako diskriminaziorik egitea, edota, indarkeriaz gainera, emakumeek pairatzen dituzten beste desberdintasun batzuetan oinarritutako diskriminaziorik, hala nola hizkuntzan, erlijioan, egoera edo gaitasun ekonomikoan, sexu joeran, jatorri etnikoan, prestakuntzan, adinean, osasun egoeran, desgaitasunean, migratzaile estatusen edo egoitzaren egoeran administratiboan, besteak beste.
- ▶ Esku-hartzean, uneoro aitortu beharko da emakume guztiek dutela eskubidea arreta, babes eta oneratzeko sare publikoko baliabide eta zerbitzuetara jotzeko aukera, emakume horiek Antsoingoa zer lekutan bizi diren alde batera utzita.
- ▶ Ahalbidetuko da bizirik atera diren biktimak beren ohiko hizkuntzan komunikatu ahal izatea langileekin, horretarako bitarteko egokiak jarrita. Gainera, biziraun dutenekiko komunikazioan erabiltzen den hizkuntzan ez da teknizismorik erabiliko eta ulergarria izan beharko du haientzat guztientzat.

- ▶ Emakumeek desberdintasun mota bati baino gehiagori aurre egin behar dietela aitortzetik abiatuta, esku-hartze profesionala asistentzialista, paternalista, misoginoa, matxista eta etnozentrikoa ez den maneran egingen da.
- ▶ Laguntza prozesuak banan-banakoak izanen dira, emakume bakoitzak eta baliabide bakoitzerako erreferentziako pertsonak izan duten ibilbidearen berri izanda, bikoizketak eragozte aldera.
- ▶ Emakumeen denborak eta erritmoak errespetatuko dira, beren kontakizunak zalantzan jarri gabe, eta beren erabakiak ez dira inoiz gutxietsiko.
- ▶ Erreparazio prozesuaren zati gisara, herritarrentzako neurriak proposatuko dira, kaltearen erreparazio kolektiboa xede dutenak.
- ▶ Indarkeriari arreta emateko tokiko sarean parte hartzen duten profesional guztiek ulertu behar dute indarkeriatik ateratzeko prozesuek atzerakadak izaten ahal dituztela; hala, ez dira emakumeak horren erruduntzat joko, eta frustrazio sentimenduak alde batera utziko dira esku-hartzean.
- ▶ Indarkeriatik biziraun duten biktimek jasotako arretaz duten iritzia eta balorazioa aintzat hartu eta bildu egingen dira, galdetegien bitartez. Galdetegirik ezean, informazio hori biltzeko beste teknika bat erabiltzen ahalko da.

6. JARDUKETA PROZEDURAK ESPARRUZ ESPARRU

6. JARDUKETA PROZEDURAK ESPARRUZ ESPARRU

Atal honetan, batera jokatzeko hiru prozedura zehaztu dira, protokolo honetan **gizarte, polizia eta osasun esparruetatik** parte hartzen duten baliabideetarako. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko esku-hartzeak era askotako baliabideak ukitzen baditu ere, ondoren garatzen diren lan prozedurak identifikatu eta prestatze aldera, kontuan hartu da prozedura horietan udal baliabideek parte hartzea edota Antsoaingo udalerrian diharduten baliabideak izatea, edo emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak artatzeko sare publikoko parte izatea eta beste baliabide batzuekiko koordinazioa eta elkarlana behar dutenak beren lana egiteko.

Hemen azaltzen diren prozedura guztietarako, honakoa nabarmendu nahi da protokolo honetan:

1. Esku-hartzearen protagonistak eta, beraz, azaldutako prozedurenak, **Antsoainen bizi diren emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duten biktimak dira**. Erroldatze-lekua soilik hartuko da kontuan Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak egindako jarduketan.
2. **Emakumeek baimendu egin beharko dute** baliabideen arteko elkarlana eta koordinazioa, pertsonen dagokien informazioa trukatzea dakarrenean, betiere datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudiarekin bat.
3. Zehazturik dauden prozedura guztiek Nafarroan **koordinazio eta elkarlan esparruko arau eta hitzarmenetan** dute abiapuntua, edota Nafarroako Foru Komunitatean dira aplikatzekoak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan; eta, orobat, Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak bildutako neurrietan dute abiapuntua, Toki Entitateei baitagokie itun hori abian jartzea.
4. Atal honetan azaltzen diren prozedurek, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko erreferentziazko araudian ezarritako xedapen batzuk Antsoainerako zehazteaz gain, lehenatasunez erantzun nahi diete protokolo honetan parte hartzen dutenen kontuei (indarkeriatik biziraun duten Antsoaingo biktimak barne). Izan ere, parte-hartzaile horien iritziz, kontu horiek hobetu beharrekoak dira, baliabideen artean beharrezkoak diren elkarlan eta koordinazioa eraginkorrak izanen badira udalerrian, eta emakumeak eta haien seme-alabak **berriro biktima ez bilakatze**ko.
5. Esparruka zehazturiko prozedurak baliabideen arteko koordinazio eta elkarlanari soilik dagozkio; beraz, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren arloko eragile publiko eskudunen lana egituratzen duten **barne laneko protokoloak eta prozedurak aitortu eta aintzat hartzea** da prozeduren abiaburua.
6. Protokolo honek emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legean bildutako emakumeen aurkako indarkeria mota eta agerpen guztiak aitortzen ditu. Hala ere, hemen esparruka zehazturik dauden jarduketa prozedurek ardatz dituzte protokoloan parte hartzen duten eragile guztiek Antsoainen gehien identifikatu dituzten indarkeria agerpenak, emakumeen aurkako indarkeria moten artean,hots, **indarkeria bikotean edo bikote ohian eta indarkeria sexualaren agerpenak**. Emakumeen aurkako indarkeriaren gainerako agerpenetarako, Estatuko

nahiz Nafarroako bertako beste esparru protokolo batzuetan ezarritakoari jarraituko zaio, (emakume eta neskatoen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, etab.).

7. Antsoaingo Tokiko Koordinazio Mahaiak **gorabeheren txosten** bat prestatzen ahalko du, protokolo honetan ezarritakoa betetzen ez bada edo, era zabalagoan eta orokorragoan, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakundeen arteko III. Akordioan ezarritakoa betetzen ez bada. Txostena bidaliko zaio gorabehera prestatzea eragiten duen/duten baliabidea/baliabideak ordezkatzeko dituen erakundeari eta Nafarroako berdintasunerako Institutuko Kudeaketa Zuzendaritzari, baloratu eta aintzat har dezan, organo hori baita Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakundeen arteko III. Akordioaren Jarraipenerako Batzordeburua.
8. Hitzartu denarekin bat, udalaren **Berdintasun Zerbitzuak** gizarte arloan jardungo du, zuzenean aritzen baita elkarlanean esparru horretako baliabideekin, egoera jakin batzuetan. Hala ere, protokoloa kudeatzerekin lotutako atalean zehaztuko denez, zerbitzu horrek **are esku-hartze zabalagoa eta zeharkakoagoa** egingen du; izan ere, prebentzio arloan esku hartzeaz gain, zerbitzua protokoloaren koordinazioaren eta jarraipenaren arduraduna da. Berdintasun Zerbitzuak eginkizun horiek baditu ere, protokoloan parte hartzen duten gainerako eragileek haren inguruan jardun behar dute buru-belarri.

1. GIZARTE ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA

1. GIZARTE ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA

1.1 PROZEDURAREN ETA EGINKIZUNEN BALIABIDE HARTZAILEAK PROTOKOLOAN

▶ BALIABIDE HARTZAILEAK:

1. Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzua.
2. Antsoain, Berriobeiti, Berriozar, Itza eta Txulapaingo Udalen Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.
3. Genero-indarkeriaren biktimei oso-osoko arreta emateko taldea Iruñerrian eta Nafarroako Iparraldean (EAIV Iruñerria eta Iparraldea).

▶ EGINKIZUNAK:

⇒ Berdintasun Zerbitzua.

- Prebentzioa, sentsibilizazioa, ikerketa eta koordinazioa.
- Berdintasun Zerbitzura zuzenean iristen diren kasu larrien lehen harrera eta baliabide espezializatueta bideratzea.
- Arreta psikologikoa protokoloak biltzen duen egoeretan, programa honen bidez: "Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta arreta programa eta haien ahalduntzea".

⇒ Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea (OGZM)

- Emakumeen aurkako indarkeria kasuak atzematea, informazioa eta lehen harrera.
- Kasuak baliabide espezializatueta bideratzea eta haien jarraipena egitea.
- Beste baliabide espezializatu batzuetara joan nahi ez duten kasuen arreta soziala.
- Genero-indarkeriaren biktimak artatu eta babesteko Telefono Zerbitzuaren Kudeaketa (ATENPRO).

⇒ EAIV Iruñerria eta Iparraldea

- Arreta espezializatu eta integrala, gizarte, psikologia eta hezkuntza arloetakoa nahiz arlo juridikokoa (Emakumeendako Arreta Juridikorako Zerbitzuaren bidez, SAM) emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun dutenentzat, beren oneratzeko prozesuan. Arreta psikologikoa eta hezkuntza arlokoa banakakoa edo taldekakoa izan daiteke.
- Hezkuntza eta psikologia arloko arreta espezializatu biziraun dutenen seme-alabentzat.
- Epaitegi eta bestelako baliabide publikoetara laguntzea, udalekoak izan nahiz udalez gaindikoak izan.

1.2 PROZEDURAREN XEDEA ETA ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

▶ XEDEA:

Koordinazioa arautu eta bateratzea Antsoainen eskumena duten gizarte esparruko baliabideetan eta baliabide horien artean, bai eta gizarte esparruko baliabide horien eta udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren arretarako sare publikoan diharduten beste eragile instituzional batzuen artean.

▶ ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

Protokolo honetan aipatutakoa

1.3 JARDUKETA KOORDINATURAKO PROZEDURA

LANGILEAK, GUNEAK ETA ARRETAREN EZAUGARRIAK

LANGILEAK

- ▶ Gizarte esparruko baliabide bakoitzean, **erreferentziako pertsona** bat izendatuko da beste baliabide batzuekin harremana izateko, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriaren arloa koordinatzeko pertsona izendatuek eta/edo biziraun duten biktimekin zuzenean esku hartzen dutenek **prestakuntza espezializatua** jasoko dute arlo horretan. Horretarako, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen lana egituratzeko programa bakoitzeko pertsona batek, gutxienez, prestakuntza nahikoa eta egokia izanen du, emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duten biktimak artatzeko, betiere foru araudiak ezarritako ikuspegiarekin bat.
- ▶ Antsoainen, gizarte esparruko baliabideetan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzen duten langileen **gaikuntza hasierakoa eta etengabea** izanen da. Gizarte esparruko baliabideek behar den gaitasuna izanen dute emakumeen aurkako indarkeriazko egoerak atzemateko; bereziki, indarkeria bestelako bazterkeriekin gurutzatzen den egoerak atzemateko (desgaitasuna, mendekotasuna, pobrezia, adikzioak, migrazioa, etab.), esku-hartzearen bidez biziraun dutenen ahalduntzean laguntze aldera. Gainera, etengabe izanen dute informazio eguneratua Nafarroako sare publikoan emakumeen aurkako indarkeria artatzeko diren baliabide guztiez eta haietan sartzeko prozedurez.

ARRETA GUNEAK

- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duten biktimek **beren intimitatea eta beraien buruzko informazioaren konfidentziasuna** bermatzen duten guneetan itxaron eta jasoko dute arreta, prozedura honetan parte hartzen duten baliabide guztietan tratatutako informazioari dagokionez.
- ▶ Biziraun dutenak artatzeko gunean ez dira haien seme-alabak egonen.
- ▶ Xedea izanen da udalez gaindiko baliabideek Antsoainen biziraun duten biktimei arreta egitea; lehen arretan, batez ere. Horretarako, Antsoainen egoitza izanik, protokolo honetan parte hartzen duten baliabideek guneak jarriko dituzte udalez gaindiko baliabideen eskura (Iruñerriko eta Iparraldeko EAIIV, adibidez. Haien egoitza ez baitago Antsoainen), biziraun duten biktimak udalerrian bertan artatu ditzaten, beharrezkoa denean, horretarako behar diren tramiteak arinduz.

ARRETA MOTA

- ▶ Gizarte esparruko baliabideek emakumearen aurkako indarkeriazko kasuei erantzuteko antolatuko duten arretak **berehalakoa** izan beharko du, itxaron zerrendarik gabea.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria **zeharkako aldagaia** izan da gizarte esparruko baliabideen arretarako; Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak jarduteko, batez ere. Horregatik, arretan **susmo adierazleak** erabiliko dira (lesioak eta osasun egoera; emakumeen eta haien seme-alaben jarrera eta portaera; bikotekideen jarrera, haiekin batera joaten badira, etab.). Izan ere, Oinarrizko Gizarte Zerbitzura joaten diren emakume askok ez dute ezagutzen bizi duten indarkeria, ezkutatu egiten dute, minimizatzen dute, normaltzen dute, edota ezin dute ahoz adierazi. Indarkeria dagoelako susmoa dagoenean, egoera horiek ikustarazten laguntzeko moduko galderak erabiliko dira.
- ▶ Gizarte esparruko baliabideen arretak **kalitatea, berotasuna eta enpatia** izan ditu oinarri. Izan ere, esku-hartzeen eraginkortasuna handitzeaz gain, konfiantzazko harreman bat ahalbidetzen du baliabideetatik esku hartzen dutenen eta biziraun dutenen artean.
- ▶ **Emakumeei entzun eginen zaie**, informazioa eman baino lehen. Informazio zehatza emanen zaie, haien eskari eta beharrei erantzuteko modukoa. Ez da kontakizunei buruzko iritzirik emanen, ezta baloraziorik eginen ere.
- ▶ Emakumeei azalduko zaie zer espero dezaketen baliabide bakoitzetik eta zer laguntza emanen zaien, **itxaropen** faltsurik sortu gabe.
- ▶ Gizarte esparruko arreta-prozesu guztian emakumeen erabakiak errespetatuko badira ere (salaketa ez jartzearen erabakia barne), beti bermatuko da emakumeen **segurtasuna** eta behar diren bideak bilatuko dira arriskuan ez egoteko edo arriskuan ez jartzeko, ez haiek, ez haien seme-alabak. Horretarako, emakumeek gizarte esparruan duten erreferentziazko baliabideak banakako segurtasun-plan bat eginen du haiekin, eta batez ere, emakumeek beren burua babesteko neurriak hartuko dira, emakumeek salaketarik jarri nahi ez badute.
- ▶ Ez da bikoiztuko mezurik eta esku-hartzerik, eta gizarte, hezkuntza eta psikologia arloko **erreferentzia bakarra** mantenduko da, baldin eta prozedura honetan parte hartzen duten baliabide batek baino gehiagok arreta egiten badie biziraun duten biktimei.

ERREFERENTZIAZKO BALIABIDEA

Gizarte esparruan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta espezializatua eta integrala emateko **erreferentziazko** baliabidea **Iparraldeko eta Iruñerriko EAIV** da. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eta Berdintasun Zerbitzuaren esku-hartzea kasuen prebentzio, detekzio, lehen arreta eta/edo harrera eta jarraipenera egonen da beti bideratua, salbu eta indarkeria aitortzen ez den kasuetan edo arrisku apaleko edo ez-sumatuko polizia-balorazioa duten kasuetan; horrelakoetan, Berdintasun Zerbitzuak hartuko du bere gain laguntza psikologiko espezializatua.

SARBIDEA

- ▶ Gizarte esparruko baliabideetarako sarbidea **zuzeneko** izan daiteke, biziraun duenak halaxe eskatuta, edota beste gizarte baliabide edo baliabide komunitario batzuek bideratuta.
- ▶ Gizarte esparruko arretarako ez da nahitaez salaketa jarri behar.
- ▶ Antsoingo **kokapena** eta Iruñearekiko hurbiltasuna gorabehera, eta Antsoainen esku hartzen badute ere udalerriaz gaindiko eskumen esparrua duten baliabideek, protokolo honetan parte hartzen duten baliabideek behar bezala bideratuko dute beren arreta, hori guztia ez dadin oztopo izan indarkeriatik biziraun duten biktimei eskubidez dauzkaten baliabideak eskuratzeko.

- ▶ Biziraun dutenei beren **erreferentziazko hizkuntzan** eginen zaie arreta, Antsoainen diren baliabide komunitarioen bitartez. Lehenetsunez, emakume batek eginen du itzulpena, baliabide komunitario baten bidez eskatzen denean. Baliabide komunitarioak ez badago, beste bide batzuk erabiliko dira, hala nola haren konfiantzazko pertsonen bidezko itzulpena, hizkuntzak arretan atzerapenik eragin ez dezan.
- ▶ Inoiz ez dute itzulpena eginen biziraun dutenen seme-alabek, ezta emakumeen aurkako indarkeria dagoelako susmo hutsa dagoenean ere.

GIZARTE ESPARRUKO BALIABIDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

- ▶ **Berdintasun Zerbitzuak** presaz artatzen duenean edo bere programetako baten bidez identifikatzen duenean emakumeen aurkako indarkeriazko egoera bat, honela ekingo zaio, oro har:
 - a) Biziraun dutenak Berdintasun Zerbitzura zuzenean edo presaz joaten badira, zerbitzu horrek **lehen harrera** egingen du.
 - b) Emakumea Berdintasun Zerbitzura zuzenean edo presaz joaten bada, edo indarkeriazko egoera identifikatzen bada Berdintasun Zerbitzuak bultzatzen duen programa baten bidez, **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin** egiaztatuko da biziraun duen pertsona baliabide horretan artatzen ari ote diren. Bertan artatzen ari badira, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko erreferentziazko figurak SIUSSen informazioa gorde eta kasuaren jarraipena egingen du.
 - c) Berdintasun Zerbitzuak, "Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzio eta arretarako eta ahalduentzeko Programaren" bitartez, **arreta psikologikoa** emanen die indarkeria izan delako **susmoa** dagoen kasuetan, baldin eta biziraun dutenek **egoera hori aitortzen ez badute** eta **arriku apaleko edo ez-sumatuko polizia-balorazioa duten kasuetan**.
- ▶ **OGZMek** emakumeen aurkako indarkeriazko egoera bat identifikatzen duenean, oro har, honela ekingo zaio:
 - a) Emakumea jada OGZMek artatu badu, kasua haren erreferentziazko figurara bideratuko da (loturarik badago), eta horrek kasuaren jarraipena egingen du prozesu osoan.
 - b) Kasu bakoitzeko erreferentziazko figurak SIUSSen grabatuko du emakumeen aurkako indarkeriari dagokion informazioa, nahiz eta indarkeria ez izan emakumea OGZMera joateko arrazoi nagusia. Biziraun duena ATENPRO zerbitzua erabiltzen ari bada, informazio hori ere SIUSSen bilduko da.
 - c) Emakumeen aurkako indarkeria dagoelako **susmoa** dagoen kasuetan edota OGZek indarkeria hori identifikatzen dutenean, baina **emakumeak indarkeria horren kontziente ez direnean edota aitortzen ez dutenean**, kasuak Berdintasun Zerbitzura bideratuko dira, eta han **arreta psikologikoa** emanen zaie, egoera horretatik abiatuta, egokia bada.
 - d) **Emakumeak indarkeriaz kontziente diren eta aitortzen duten kasuetan, eta poliziak arriskuaz egindako balorazioa ertaina, altua edo muturrekoa denean**, kasuak Iruñerriko eta Iparraldeko EAIVera bideratuko dira, eta han, arreta espezializatua eta integralaz arduratuko dira.
 - e) OGZMek Berdintasun Zerbitzura edo EAIVera bideratzen dituen kasuen gaineko **txostenak** egingen ditu. Txostenetan soil-soilik bilduko da kasuak bideratzeko beharrezkoa den informazioa, biziraun duenak informazio berbera behin eta berriz errepikatu behar izan ez dezan.

- d) Berdintasun Zerbitzuak **ez die arreta psikologikorik emanen biziraun dutenen seme-alabei.**
- e) Arreta Psikologikoa Berdintasun Zerbitzuan abiarazi diren kasuetan, baina gero, kasu horiek EAIVera bideratzen badira, **erreferentzia psikologiko berbera mantenduko da, emakumeak halaxe nahi badu.**
- f) Berdintasun Zerbitzuak EAIVera bideratzen dituen kasuen gaineko **txostenak** egingen ditu. Txostenetan soil-soilik bilduko da kasuak bideratzeko beharrezkoa den informazioa, biziraun duenak informazio berbera behin eta berriz errepikatu behar izan ez dezan.
- g) Berdintasun Zerbitzuak biziraun dutenen egoeraren tratamenduari buruzko txostenak egingen ditu, baina ez soilik epaitegiek eskatuta, baizik eta biziraun dutenek berek eskatuta ere. Txostenek ebaluazio psikologikoa ere barnebilduko dute, egokia denean.

► **Iruñerriko eta Iparraldeko EAIVek** indarkeriatik biziraun duten Antsoingo biktimak artatzen dituztenean, honela ekingo zaio:

- a) **Lehen arreta, lehentasunez, Antsoingo udalerrian egingen da,** biziraun duenak halaxe nahi badu, harentzat erreferentziazkoa den eta intimitatea ahalbidetuko duen leku batean.
- b) Iruñerriko eta Iparraldeko EAIVek **txostenak** egingen dituzte OGZ Mankomunitatetik edo Berdintasun Zerbitzutik bideratu dituzten kasuez, ezarriko denarekin bat (itzultze txostenak behar diren kasu motak, txostenen edukia, emakumeen baimena horrelako txostenak egiteko eta edukiaren ezagutza, etab.).
- c) EAIVek biziraun dutenen egoeraren tratamenduari buruzko txostenak egingen ditu, baina ez soilik epaitegiek eskatuta, baizik eta biziraun dutenek berek eskatuta ere. Txosten horiek adituaren balorazio-txostenaz bestelakoak izanen dira eta, kasuaren arabera eta egokia denean, azaldu egingen dute bai zer esku-hartze psikologiko egingen den, bai esku-hartzearen bilakaera eta jarraipena. Egiten diren txostenetan gauza gehiago bildu beharko dira biziraun duenak izan dituen hitzorduen segida kronologikoa baino.

► Gizarte esparruko baliabideen arteko koordinazioa eraginkorra izate aldera, gizarte esparruko baliabideak **hiru hilean behin** bilduko dira, partekatu dituzten kasuen inguruko informazioa elkarri emateko.

GIZARTE ESPARRUKO BALIABIDEEN ETA BESTE BALIABIDE BATZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA: SAVD, EULZ, SAM ETA IKASTETXEAK

SAVD	<ul style="list-style-type: none"> ▶ OGZen Mankomunitatetik Delituen Biktimei Laguntzeko eta Organo Judizialekin Aritzeko Atalera bideratuko ditu emakumeen aurkako indarkeriaren erasotzaileak, egoera horietarako dagoen protokoloaren bidez, Iruñean egiten diren laguntza terapeutikoko programetan beren borondatez eta bide anbulatorio bidez parte hartzeko aukera izan dezaten. ▶ Gizarte esparruko baliabideek SAVDren izaera espezializatua izanen dute kontuan, bizirik dirauten pertsonak bideratzeko, SAVD arlotu judizialeko arreta integralerako baliabidea baita (arreta soziala, juridikoa eta psikologikoa). ▶ Gainera, kasuak bideratze aldera, gizarte esparruko baliabideek kontuan hartuko dute SAVD espezializatua dagoela bai biziraun dutenen seme-alaben arreta psikoterapeutikoan, bai indarkeria sexualaren agerpen ororen biktimen (emakumeak eta neskatoak) arreta psikoterapeutikoan.
EULZ	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Iruñeko Udaleko Emakumeendako Laguntza Zerbitzuak Iruñerriko eta Iparraldeko EAI Vera bideratuko ditu oro har indarkeriatik biziraun eta baliabide hartara jo duten Antsoaingo pertsonak. ▶ Presazko kasuetan edo larrietan, biziraun duena Antsoainen bizi bada ere, EULZek 112 SOS Nafarroa telefonoan emanen du horren berri, kasu horietarako ezarrita dagoen jarduketara protokoloa abiatu dadin.
SAM	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun dutenek Emakumeendako Laguntza Juridikoko Zerbitzuaren bidez jasoko dute aholkularitza juridikoa, Iruñerriko eta Iparraldeko EAI Ven egoitzan, aurrez hitzordua eskatuta. Aholkularitza juridiko hori jasoko bada, ez da beharrezkoa biziraun duena EAI Ven arreta jasotzea, ezta salaketa jartzea ere.
IKASTETXEAK	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Antsoaingo ikastetxe publiko eta pribatu orotako zuzendaritzak baldin badaki edota susmo arrazoitua badu ikastetxeko neska ikasle bat edo emakume langile bat edo ikasleren baten ama emakumeen aurkako indarkeria pairatzen ari dela senide baten aldetik edo ikastetxeko langileez bestelako pertsona baten aldetik, OGZ Meri jakinaraziko dio. OGZ Mek, kasuaren arabera, prozedurekin bat jotzeko du, eta Berdintasun Zerbitzuaren aholkularitza eskatuko du, beharrezkoa jotzen duenean. ▶ Ikastetxeak eta OGZ Ma hiru hilean behin bilduko dira, emakumeen aurkako indarkeria kasuen jarraipena egiteko eta egoera berriak ezagutzera emateko. ▶ Kasu larrietan, ikastetxea 112 larrialdietarako telefonoarekin jarriko da harremanetan. ▶ Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko Erakundearen arteko Akordioak Nafarroako ikastetxeetarako ezarri duen prozedura erabiliko da Antsoaingo ikastetxeetan emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko.

2. POLIZIA ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA

2. POLIZIA ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA

2.1 PROZEDURAREN ETA EGINKIZUNEN BALIABIDE HARTZAILEAK PROTOKOLOAN

▶ BALIABIDE HARTZAILEAK

1. Antsoaingo Udaltzaingoa
2. Foruzaingoa (Iruñeko Foruzaingo Etxea)
3. Guardia Zibila (Guardia Zibilaren Konpainia Iruñean).
4. Polizia Nazionalaren Kidegoa.

▶ EGINKIZUNAK:

- Berehalako arreta eta polizia-babes eraginkorra ematea biziraun duten biktimei.
- Emakumeentzako eta seme-alabentzako izan daitezkeen arrisku egoerak detektatu eta kontrolatzea.
- Balorazio polizialak egitea arriskuaz, arriskuen gaineko balorazio polizialen bilakaeraren ebaluazioak egitea eta polizia-babeserako neurrien jarraipena egitea, Vio Gen sistemaren bidez identifikatu den arrisku mailaren arabera ezarriak.
- Informazio argia eta ulergarria ematea emakumeei haien eskubideez eta horietaz baliatzeko bidez (beren burua babesteko jarraibideak arrisku egoeren aurrean, urrutze-neurriak eta komunikazio debekuak urratzea, etab.).
- Jarduketak beste Polizia Kidego batzuekin koordinatzea, bai eta beste baliabide publiko batzuekin ere (sozialak, juridikoak eta psikologikoak).

2.2 PROZEDURAREN XEDEA ETA ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

▶ XEDEA:

Koordinazioa arautu eta bateratzea Antsoainen eskumena duten polizia esparruko baliabideetan nahiz baliabide horien artean, bai eta Polizia Kidegoen eta udalerrian emakumeen aurkako indarkeriaren arretarako sare publikoan diharduten beste eragile instituzional batzuen artean.

▶ ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

Protokolo honetan aipatutakoa.

2.3 JARDUKETA KOORDINATURAKO PROZEDURA

LANGILEAK, GUNEAK/EKIPAMENDUAK ETA ARRETAREN EZAUGARRIAK

LANGILEAK

- ▶ Polizia Kidego bakoitzean **erreferentziatzko pertsona bat** izanen da gutxienez, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren arloan diharduten beste baliabide publiko batzuekin koordinatzeko. Horretarako, kontuan hartuko da zer antolaketa duen Polizia Kidego bakoitzak arlo honetan.
- ▶ Protokolo honetan parte hartzen duten polizia esparruko baliabideek emakumeen aurkako indarkeriaren arloko arta unitate espezializatuen bidez eginen da edota arreta mota hori egiteko behar den espezializazioa duen langileen bidez. Arreta 24 orduetan bermatuko da, urteko 365 egunetan.
- ▶ Polizia Kidegoak agente emakumezkoak izaten saiatuko dira emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun dutenak polizia bulegoetan artatzeko eta, era berean, babes neurrien jarraipena egiteko, biziraun dutenek berek halaxe eskatutako kasuei erantzute aldera edota ikusten denean agente gizonezkoaren arreta oztopoa dela biziraun duenaren komunikaziorako.
- ▶ Poliziek **prestakuntza espezializatua** izanen dute emakumeen aurkako indarkeriaren arloan. Prestakuntza hori egokitua egonen da poliziek indarkeriaren arloan dituzten eskumen eta eginkizunetara, eta xede izanen du poliziaren arreta sentiberatasun, kalitate eta eraginkortasunez egitea, protokolo honetarako erreferentziatzko araudiak ezarritakoarekin bat.
- ▶ Poliziek emakumeen aurkako indarkeriaren arloan izanen duten **prestakuntza hasierakoa** izanen da, esku hartzeko oinarritzko baldintza gisa, baina baita **etengabea** ere.

GUNEAK ETA EKIPAMENDUAK

- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duten biktimek **beren intimitatea eta beraiei buruzko informazioaren konfidentzaltasuna** bermatzen duten guneetan itxaron eta jasoko dute arreta.
- ▶ Beti saiatuko beharko da eragozten biziraun duten biktimek ez itxaron behar izatea polizia-bulegoetan arreta orokorragorako dauden guneetan.
- ▶ **Eragotziko da biziraun dutenen seme-alabak poliziaren esku-hartzearen prozesu osoan egotea** (salaketa, jarraipenerako elkarrizketak, etab.). Poliziaren arreta etxe batean egiten denean, kontuan hartuko dira bai biziraun dutenen seme-alabak, bai haiek hain une konplexuan dituzten beharrak (adibidez, une horretan amaren ondoan egon nahia); horrenbestez, arreta berezia pausatuko da egoera horietan, adingabeen aurrean egiten diren galdera motak bideratuta.
- ▶ Polizia-bulegoetan, seme-alabek, amak dauden lekuetatik **bereizitako gela batean itxarongo dute**. Seme-alabek beren amak ikusteko moduan egonen da gela hori ekipatua. Salaketa bitartean, adingabeak beren konfiantzazko pertsona baten konpainian egonen dira edota, bestela, horrelako egoeretan dauden adingabeen arretan espezializatutako langileek lagunduta.
- ▶ Pixkanaka, behar diren aldaketak eginez joanen dira, polizia-bulegoak **irrisgarriak** izateko eta oztopo arkitektonikorik ez izateko.
- ▶ Ahal den heinean, poliziak **ez dira uniformeaz jantzita joanen, ezta auto errotulatueta ere, biziraun dutenekin doazenean, edota biziraun dutenek eta haien seme-alabek daukaten arrisku mailaren araberako babes neurrien jarraipena egiten dutenean**.
- ▶ Ahal den neurrian, polizia-autoek egokituak egon beharko dute, biziraun dutenak eta seme-alabak haietan eramateko (aulki egokituak). Betebehar hori betetzetik ez badago, eta egoerak eskatzen duenean, Antsoaingo Udalak biziraun dutenen eta haien seme-alaben taxi garraioaren kostua finantzatuko du; taxiak beharrezkoak diren bitartekoak izan beharko dituzte.

ESKU-HARTZE MOTA

- ▶ Poliziaren arreta berehalakoa izanen da eta, ahal den neurririk handiengan, sentibera, kalitatezkoa, azkarra eta eraginkorra, erreferentziatzko araudiak ezarri bezalaxe.
- ▶ Lerratzerik gabeko esku-hartzea egingen da. Horretarako, arreta polizialaren prozesuko fase guztietan behar den informazioa baino ez da bilduko. Emakumeei ez zaie inoiz zuzeneko galderarik egingen, kasu zehatzetan izan ezik, edota datu oso garrantzitsu bat falta denean. Ez da iritzirik edo juzkurik emanen eta jarrera enpatikoa agertu beharko da.
- ▶ Biktimekin egiten diren jarduketetan, ez da haien bertsioa zalantzan jarriko eta behar diren eginbide guztiak egingen dira egintzen egiazkotasuna ziurtatzeko, betiere ahalik eta sentiberatasun eta enpatia handienarekin. Kontuan hartuko da oso konplexua dela salaketa bat jartzeko erabakia eta, horrexegatik, hain zuzen, biziraun dutenekin egiten diren lehen jarduketak funtsezkoak dira haien prozesuetan; biktimari elkarriketa gitea edo hari deklarazioa hartzea, adibidez.
- ▶ Poliziak esku hartzen duenean, hots, etxeetan egiten diren esku-hartzeetan edota larrialdiko egoeretan, biziraun duenari ez zaio soilik salaketa jartzeari buruzko informazioa emanen. Kontuan hartuko da biziraun dutenak salaketa jartzearen beldur direla eta, salaketa jartzearen erabakiak, askotan, denbora behar duela.

SALAKETA

- ▶ Biziraun dutenek informazioa jaso eta salaketa jartzeko erabakia hartzen dutenean, **salaketa erarik azkarrean jarriko dela bermatuko duen** Polizia Kidegora bideratuko ditu Antsoingo Udaltzaingoak kasu horiek, betiere kontuan hartuta unitate espezializatu batek jaso behar duela salaketa.
- ▶ Foruzaingoak nahiz Guardia Zibilak, bi-biek, esku-hartze hori berehalakoan egingen dela bermatuz gero, **Antsoingo Udaltzaingoak haiengana bideratuko ditu biziraun dutenak, salaketa nahi duten polizia kidegoan jar dezaten edota, bestela, espezializazioari begira, jarduketarik eraginkorrena bermatzen duten bulego edo unitateetara**. Berdin jokatu da indarkeria sexualaren kasuak gertatu ahal izan basira, berehalakotasuna eta espezializazioa behar-beharrezkoak baitira.
- ▶ Biziraun dutenak ados badira, Antsoingo Udaltzaingoak **lagundu** egingen ditu salaketa jarriko duten Iruñeko polizia kidegoaren egoitzara (ahal bada, errotulurik gabeko autoetan eta uniformeaz jantzita ez dauden langileekin). Kasuaren arabera, Antsoingo Udaltzaingoak biziraun dutenen prozesuetako funtsezko uneetan ere lagunduko ditu (osasun zentroetara lesioei buruzko parte bat egiteko; Iruñeko epaitegietara; Berriozarko EAI Vera, etab.). Baina horrelako joan-etorriak egin beharrak ez du emakumeengan birbiktimizaziorik eragin behar eta haien segurtasuna bermatu behar da.
- ▶ Salaketa jarri aurretik, Antsoainen eskumena duten polizia kidegoek informazio argia eta lerratzerik gabea eman behar diete biziraun dutenei **SAM edo Emakumeendako Arreta Juridikorako Zerbitzuko abokatuaren laguntza jasotzeko eskubideaz**. Biziraun duenak baimena ematen duen orotan, erreferentziatzko polizia kidegoak SAM zerbitzuaren laguntza eskatuko du poliziaren egoitzan, salaketa jarri aurretik. SAM zerbitzuaren laguntza, oro har, aurrez aurrekoa izanen da.

	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Polizia Kidegoak beste egoera batzuen artean ikusten badu biziraun duenak laguntza emozionala behar duela eta komunikazio hobea salaketa jartzeko, Laguntza Psikologikorako Zerbitzua eskatuko du, 112 SOS Nafarroa telefonoaren bidez ematen dena. Eskaera biziraun dutenek baimena emanda eginen da eta, era berean, indarkeria sexualaren kasuetan hartu behar da kontuan.
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">INFORMAZIOA ETA GIZARTE ESPARRUKO BESTE BALIABIDE BATZUETARA BIDERATzea</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Antsoaingo Udaltzaingoak emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duen pertsona batekin esku hartzen duen bakoitzean, pertsona horrek salaketa jarri edo ez, Udalaren Berdintasun Zerbitzuari buruzko informazioa emanen zaio gizarte esparruko baliabideen artean eta, era berean, hark baimena emanik, zerbitzu horretara bideratuko dute. Behin emakumeak iritsita, Berdintasun Zerbitzuak berak ekintzarik egokienak koordinatuko ditu arreta integrala eta eraginkorra izan dadin (ikusiz gizarte esparruko prozedura). Horretarako, Antsoaingo Udalaren ardura izanen da herriko Udaltzaingoaren egoitzan Berdintasun Zerbitzuaren telefonoa duten txartelak egotea, hainbat hizkuntzatarara itzuliak eta egokituak. ▶ Foruzaingoak edo Guardia Zibilak emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun duen pertsonarik artatzen duen bakoitzean, Iruñerriko eta Iparraldeko EAI Veri buruzko informazioa emanen zaio arreta integraleko erreferentziatzeko baliabideen artean, eta era berean, hark baimena emanik, zerbitzu horretara bideratuko dute. Horretarako, bi Polizia Kidego horien Iruñeko egoitzetan, Nafarroako Gobernuako baliabide publiko horren telefonoa duten txartelak egonen dira, hainbat hizkuntzatarara itzuliak eta egokituak. ▶ Ahal delarik, emakume horiei informazio zehatza eta formatu irisgarrian emanen zaie, haien beharretara egokitua. Hain une konplexua izanik, biziraun dutenei ez zaie nahasketa eragin dezakeen informaziorik emanen (baliabide publikoei buruz, adibidez); esaterako, informazio neurrigabea ematearen ondorioz. ▶ Prozedura honetan, salaketaren unean, biziraun dutenei ez zaie bakarrik informazioa emanen gizarte esparruko erreferentziatzeko baliabideez, baizik eta arreta-prozesu osoan eta poliziaren babespean dauden bitartean (etxe batean esku-hartzea edo biziraun dutenek dituzten babes polizialeko neurrien jarraipena, arrisku mailaren arabera).
<p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);">HIZKUNTZA</p>	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren egoitzetan, itzulpen zerbitzua eskatuko da biziraun duenaren erreferentziatzeko hizkuntzara eta, pertsona horrek gaztelaniaz duen ulermen mailaz gain, kontuan hartuko da behar hainbateko mailarik ote duen pairatutako indarkeria gaztelaniaz komunikatzeko. ▶ Antsoaingo Udaltzaingoak itzulpena egin beharra jotzen duenean, Antsoainen diren baliabide komunitarioen bidez eskatuko da zerbitzu hori. Baliabide komunitariorik ez badago, beste bide batzuk erabiliko dira, hala nola biziraun dutenen konfiantzazko pertsonak itzulpena egitea. ▶ Poliziak babes neurrien jarraipena egitean ere hartuko da kontuan itzulpen beharra. ▶ Inoiz ere ez dira biziraun dutenen seme-alabak baliatuko itzulpena egiteko.

POLIZIA ESPARRUKO BALIABIDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

UDALTAINGOAK, FORUZAINGOAK, GUARDIA ZIBILA ETA POLIZIA NAZIONALA

- ▶ Antsoainen diharduten polizia kidegoen arteko koordinaziorako esparrua honako protokolo hau da: **Antsoaingo Udalerrian Genero Indarkeriazko Egoeretan dauden Emakumeei Arreta Poliziala emateko Elkarlana**. Prozedura hori protokolo honetatik abiatzen da eta zehaztu ere egiten du.
- ▶ Polizia Kidegoek tresna nagusi bat darabilte Antsoainen haien artean koordinatzeko: **VioGen Sistema**, hau da, Barne Ministerioak Genero Indarkeriazko kasuetarako ezarria duen Osoko Jarraipenerako Sistema.
- ▶ Foruzaingoko, Guardia Zibileko edo Polizia Nazionalaren Kidegoko unitate espezializatuak egindako **arriku ebaluazioa ez-sumatua edo apala** bada, jarraipena **Antsoaingo Udaltzaingora** bideratuko da. **Biziraun duenak salaketa zer polizia kidegotan jarri duen, kidego huraxe arduratuko da arrisku maila ertain, altu edo muturrekoen** jarraipena egiteaz. Antsoaingo Udaltzaingoak arrisku ertain, altu edo muturrekoa duten biktimak babesten lagunduko du, betiere Foruzaingoko, Guardia Zibileko edo Polizia Nazionalaren Kidegoko unitate espezializatuak hala eskatuta, eta jarraipen eta kontrolerako organoak onetsitako berariazko babes planean zehazten denarekin bat.
- ▶ Erreferentziatzko polizia kidego berberak aritu beharko du biziraun dutenen prozesuan, poliziaren esku-hartzeari dagokionez; beraz, biziraun duenak, lehen salaketa jarri ondoren, beste bat jarri nahi badu, lehen aldiz artatu zuen polizia kidegora bideratuko dute. Hala ere, biziraun duenak lehen aldiz joandakoaz bestelako polizia kidego batek artatu eta babestea nahi badu, erreferentzia hori aldatzea eska dezake.
- ▶ Antsoaingo udalerrian, Polizia Nazionala biktimen babesaz eta dagozkion arrisku balorazioen jarraipenaz arduratzen da, bai eta salaketa jasotzeaz ere, emakumeek polizia-kidego horretan jarri nahi dutenean.

POLIZIA BALIABIDEEN ETA BESTE GIZARTE BALIABIDE BATZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA: BERDINTASUN ZERBITZUA, OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA ETA EAIIV

BERDINTASUN ZERBITZUA ETA OGZ MANKOMUNITATEA

- ▶ Antsoaingo Udaltzaingoak emakumeen aurkako indarkeria kasu baten berri badu, Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzuari jakinaraziko dio bide telematikoz, betiere datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudiarekin bat. Zerbitzuak protokolo honetan aurreikusitakoarekin bat jokatuko du.
- ▶ **Hiru hilean behin**, Antsoaingo Udaltzaingoak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak (egokia denean) eta Berdintasun Zerbitzuak bilera egituratuak eginen dituzte, nagusiki arrisku maila ez-sumatuko edo apaleko kasuen jarraipena egiteko.

- ▶ Iruñerriko eta Iparraldeko EAIVek **bilera** egituratuak egingen ditu aldizka, arrisku maila ertain, altu edo muturrekoa duten kasuei buruzko informazioa erkatzeko eta partekatzeko, bai Forzaingoarekin, bai Guardia Zibilarekin. Lan hori egitean, kontuan hartuko da datu pertsonalak babesteko indarrean dagoen araudia eta beharren arabera antolatuko da.

3. OSASUN ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA

3. OSASUN ESPARRUKO BALIABIDEETARAKO JARDUKETA PROZEDURA

3.1. PROZEDURAREN ETA EGINKIZUNEN BALIABIDE HARTZAILEAK PROTOKOLOAN

▶ BALIABIDE HARTZAILEAK

1. Antsoaingo Osasun Etxea (Larrialdi Zerbitzua barne).
2. Antsoaingo Osasun Mentaleko Zentroa.

▶ EGINKIZUNAK:

- Emakumeen aurkako indarkeriazko egoerak atzematea, eta biziraun dutenei nahiz haien seme-alabei gizarte eta osasun arloko arreta ematea.
- Biziraun duten biktimen osasun egoeraren jarraipena egitea, erabat oneratu arte.

3.2. PROZEDURAREN XEDEA ETA ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

▶ XEDEA:

Antsoainen diharduten osasun esparruko baliabideen koordinazioa arautu eta bateratzea udaleko beste baliabide batzuekin edo emakumeen aurkako indarkeriaren arretarako sare publikoan dihardutenekin.

▶ ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

Protokolo honetan aipatutakoa.

LANGILEAK, GUNEAK ETA ARRETAREN EZAUGARRIAK

LANGILEAK

- ▶ Antsoaingo osasun esparruko baliabideek **erreferentziako bi pertsona** izendatuko dituzte (Lehen Laguntza eta Arreta Espezializatua/Osasun Mentala), emakumeen aurkako indarkeriaren arloko beste baliabide batzuekiko interlokuziorako. Pertsona horiek, halaber, prozedura hau protokoloan parte hartzen duten Osasun Etxeetan ezagutzera emateko ardura izanen dute, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko berariazko barne protokoloekin batera, horiek aktibatzea derrigorrezkoa baita kasu jakin batzuetarako.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriaren arloa koordinatzeko izendatu diren pertsonak eta/edo biziraun duten biktimekin zuzenean esku hartzen dutenek **prestakuntza espezializatua** jasoko dute arlo horretan, hala Osasun Etxetik nola Osasun Mentaleko Zentrotik.
- ▶ Antsoainen, protokoloan parte hartzen duten osasun esparruko baliabideetatik emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzen duten langileen **gaikuntza hasierakoa eta etengabea** izanen da. Edukien artean, prestakuntza horrek emakumeen aurkako indarkeriazko egoerak atzeman, haietan esku hartu eta laguntzea barnebiduko ditu, betiere osasun esparrutik, eta berariaz landuko da indarkeriatik biziraun duten emakume batzuen kasua, hau da, desgaitasuna, gaixotasun mentala, adikzioak edota are ahulago egiten dituen beste egoera batzuetan daudenak, foru araudiak jaso bezalaxe. Prestakuntza barnean, halaber, osasun arloko langileei osasun arloko barne protokoloak azalduko zaizkie, eta era berean, emakumeen aurkako indarkeria eta haien berezitasunak artatzeko sare publikoan dauden baliabideak.

ARRETA GUNEAK

- ▶ Emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun dutenek beren intimitatea eta pribatutasuna bermatzeko moduko guneetan itxaron eta jasoko dute arreta, bai Antsoaingo Osasun Etxean, bai Antsoaingo Osasun Mentaleko Zentroan. Ahal izanez gero, haiek bakarrik jasoko dute arreta kontsultan, edo nahiago badute, konfiantzazko pertsona baten konpainian.
- ▶ Biziraun dutenen seme-alabei gune beroetan egiten zaie arreta, egokiak bai haiek komunikatu daitezen, bai haiei entzuteko.
- ▶ Emakumeei ez zaie arretarik emanen kontsultan bikotekideekin batera, eta hori beti beteko da, baldin eta emakumeen aurkako indarkeria dagoelako susmorik bada.
- ▶ Biziraun dutenak artatzeko gunean ez dira haien seme-alabak egonen.

- ▶ Gizarte esparruko baliabideek emakumearen aurkako indarkeria kasuei erantzuteko antolatuko duten arretak berehalakoa eta lehenasunezkoa izan beharko du, itxaron zerrendarik gabea. Antsoaingo Osasun Etxeak eta Osasun Mentaleko Zentroak behar den denbora guztian luzatuko dute biziraun duten biktinekiko esku-hartzea, erabat oneratu arte, haien prozesuetan beharrezkoa denarekin bat.
- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria osasun publikoko arazo bat da, bai eta norberaren osasun arazo bat da ere; horrenbestez, **zeharkakotasunez** hartuko dute aintzat Antsoaingo osasun baliabideetako esku-hartze alor eta programa guztiek. Emakumeen aurkako indarkeria zeharkako aldagaia denez, baliabide horien funtsezko eginkizuna sendotuko da, funtsezkoak baitira "indarkeria ezkutua" atzeman, baloratu, ekin eta tratatzeko. "Indarkeria ezkutua" ahoz adierazten den indarkeria da eta, identifikatuko bada, **susmo-adierazleak erabili behar dira (emakumeentzat eta haien seme-alabentzat), bai eta jarduketarako plan zehatzak ere**, emakumeek eta haien seme-alabek egoera aitortzen duten edo ez, eta osasuneko profesionalak sumatu duten arriskuaren arabera. Susmoa Historia Kliniko Informatizatuan (HCI) erregistratuko da, bai eta ATENEAN ere (Osasun Historia Sozial Batua), egokia bada, eta emakumeei jakinaraziko zaie zer balorazio egiten duen profesionalak haren egoeraz.
- ▶ Indarkeria berariaz dagoela aitortzen den kasuetan (indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala eta ekonomikoa), indarrean diren osasun protokoloekin bat ekingo zaio. Ahal den bakoitzean, osasun azterketak osasun arloko langile emakumezkoek egiten dituzte.
- ▶ Arreta eginen da, Nafarroan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean jarduteko diren protokolo bateratueta ezarritakoarekin bat. Baina horrez gain, Antsoaingo Osasun etxeak eta Antsoaingo Osasun Mentaleko Zentroak emakumeen aurkako indarkeriazko kasuetan koordinatuta jarduteko beren **barne zirkuituetatik** abiatuta ekingo diote, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko erakundeen arteko III. Akordioak jaso bezalaxe.
- ▶ Zentroetako osasun profesional guztiek konfiantzazko harremana egitera jo beharko dute biziraun dutenekin, arretan aurreiritziak eta estereotipoak saihestuko dira eta ez dira kalteak minimizatuko.
- ▶ Sinesgarritasuna emanen zaie biziraun dutenen biktimen kontakizunei, eta ez da haien lekukotasuna erasotzailearekin egiaztatuko. Kontuan hartuko da legeak berariaz debekaturik daudela bikote-terapia eta familia-bitartekaritza, emakumeen aurkako indarkeria dagoen kasuetan.
- ▶ Seme-alabekin egiten diren esploraziozko elkarrizketetan, haien adinerako eta garapen-etaparako egokiak diren galderak eta hizkuntza erabiliko dira.
- ▶ Emakumeei azalduko zaie zer espero dezaketen baliabide bakoitzetik eta zer laguntza emanen zaien, **itxaropen** faltsurik sortu gabe. Miaketak egiten badira, biziraun dutenei jakinaraziko zaie zer egin behar zaien eta zer xede duen, eta beharrezkoa denean, baimena eskatuko zaie.
- ▶ Antsoaingo osasun esparruko baliabideek diziplina-anitzeko esku-hartze koordinatua egiten dute emakumeekin eta haien seme-alabekin, mezuak eta esku-hartzeak bikoiztu gabe, **erreferentzia profesional bakar bat mantentzen saiatuta (ahal bada, gizarte langilea)**.

HIZKUNTZA

- ▶ Biziraun dutenei **beren erreferentziazko hizkuntzan eginen zaie arreta**, Antsoainen diren baliabide komunitarioen bitartez eta interpretaziorako zerbitzu telematikoen bidez, horrelakoak daudenean (Dualia). Baliabide komunitariorik ez badago, beste bide batzuk erabiliko dira, hala nola haren konfiantzazko pertsonen bidezko itzulpena (sekulan ez bikotekideen bidez), hizkuntzak arretan atzerapenik eragin ez dezan.
- ▶ Inoiz ez dute itzulpena eginen biziraun dutenen seme-alabek, ezta emakumeen aurkako indarkeria dagoelako susmo hutsa dagoenean ere.
- ▶ Antsoaingo osasun esparruko baliabideetan, informazioa agerian jarriko da erabiltzaileen eskura emakumeen aurkako indarkeria zer den azaltzeko, egoera horietan zer egin jakiteko eta Antsoaingo Osasun Etxean edo Antsoaingo Osasun Mentaleko Zentroan norengana jo dezaketen jakiteko, bai inor egoera hori pairatzen ari bada, bai inork egoera horretan dagoen norbait ezagutzen baldin badu. Informazio hori irisgarria izanen da eta hainbat hizkuntzatan egonen da eskura.

GIZARTE ESPARRUKO BALIABIDEEN ETA BESTE BALIABIDE BATZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA: BERDINTASUN ZERBITZUA, OGZ MANKOMUNITATEA, EAIV, SAVD, POLIZIA KIDEGOAK ETA EPAITEGIAK.

BERDINTASUN ZERBITZUA ETA OGZ MANKOMUNITATEA


- ▶ Osasun esparruko baliabideek emakumeen aurkako indarkeria dagoela **usmatzen** dutenean edota osasun arloko profesionalak indarkeria hori badela baloratzen duenean, **Antsoaingo Udaleko Berdintasun Zerbitzura** bideratuko du biziraun duen emakumea, baina emakumearen baimena badu. Berdintasun Zerbitzuak, kasuaren arabera, eta Antsoaingo Osasun Etxearekin koordinatuta, gizarte esparruko prozeduran ezarritakoarekin bat jardungo du. Horretarako, Berdintasun Zerbitzuarekin harremanetan jartzeaz gain ezarrita dauden bideen bitartez (telefonoa, e-maila, etab.), adosten den moduan eginen da bideratzea, hura egin dela jasotze aldera.
- ▶ Antsoaingo Osasun Etxeak **bilera egituratuak eginen ditu hiru hilean behin OGZen Mankomunitatearekin**, bi baliabideek artatzen dituzten emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen jarraipena egiteko. Osasun Mentaleko Zentroari dagokionez, bileren maiztasuna beharren arabera finkatuko da, baina, era orientagarrian, hiru hiletik behin ere eginen dira. **Berdintasun Zerbitzuak** bilera horietan parte hartuko du, kasuaren arabera. Berdintasun Zerbitzua, gainera, era orientagarrian ere, **hiru hilean behin** bilduko da Antsoaingo Osasun Etxearekin eta Osasun Mentaleko Zentroarekin, esku-hartzeak koordinatzeko, beharrezkoa denean.
- ▶ Bilera egituratuez gain, Antsoaingo Osasun Etxeak, Osasun Mentaleko Zentroak, Berdintasun Zerbitzuak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak komunikazio, koordinazio eta elkarlan etengabea eta arina izanen dute elkarren artean.


EAI	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Antsoingo Osasun Etxeak eta Antsoingo Osasun Mentaleko Zentroak Iruñerriko eta Iparraldeko EAI Vera bideratuko dituzte oro har biziraun duten Antsoingo biktimak, baldin eta pairatzen duten indarkeria berariaz aitortzen badute, eta/edo osasun arloko profesionalak baloratzen badu arriskua ertaina, altua edo muturrekoa dela, betiere biktimak baimena ematen badu. Horretarako, EAI Verekin harremanetan jarriko da, ezarrita dauden bideen bitartez (telefonoa, e-maila, etab.), eta horrez gain, kasua bideratuko da, hori egin dela jasotze aldera, osasun arloko baliabideetan eta EAI Ven ezarritakoarekin bat. ▶ Emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun eta EAI Vera bideratzen diren emakumeek, ahal bada, Antsoingo Osasun Etxean edo Antsoingo Osasun Mentaleko Zentroan jasoko dute arreta; batez ere, lehen hitzorduan, eta haiek halaxe nahiago badute. ▶ Osasun esparruko baliabideek bilera egituratuak eta programatuak eginen dituzte hiru hilean behin Iruñerriko eta Iparraldeko EAI Vekin. Gainera, bi baliabideen arteko komunikazioa eta elkarlana etengabea izanen da.
SAVD	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Antsoingo osasun esparruko baliabideek SAVDeren izaera espezializatua izanen dute kontuan, biziraun duten pertsonak bideratzeko, SAVD arlo judizialeko arreta integralerako baliabidea baita (arreta soziala, juridikoa eta psikologikoa). ▶ Gainera, kasuak bideratze aldera, hala Antsoingo Osasun Etxeak nola Antsoingo Osasun Mentaleko Zentroak kontuan hartuko dute SAVD espezializatua dagoela bai biziraun dutenen seme-alaben arreta psikoterapeutikoan, bai indarkeria sexualaren agerpen orenen biktimen (emakumeak eta neskatok) arreta psikoterapeutikoan. ▶ Osasun esparruko baliabideek erasotzaileak SAVDera bideratuko dituzte, baldin eta beren borondatez eta bide anbulatorio bidez parte hartu nahi badute SAVD zerbitzuak genero-indarkeriaren eta indarkeria sexualaren Erasotzaileentzako abian jartzen dituen Programa Terapeutikoetan.
POLIZIA KIDEGOAK	<ul style="list-style-type: none"> ▶ Larrialdiko egoeretan, kasu larrietan eta bizia arriskua dagoenean, edota sexu-eraso bat gertatzen denean, protokolo honetan parte hartzen duten Antsoingo osasun esparruko baliabideek horren berri emanen diote Antsoingo Udaltzaingori, protokolo honetan ezarritakoarekin bat jardun dezan, eta/edo 112 SOS Nafarroa telefonora deituko du (zerbitzu horrek kasuotarako aurreikusia dagoen protokoloa jarriko du abian). ▶ Biziraun dutenen biktimen babesa eta segurtasuna, emakumeen eta haien seme-alaben eskubidea izateaz gain, lehenetsuneko kontua da osasun esparruko baliabideek egiten duten esku-hartzean. ▶ Antsoingo Udaltzaingoak biziraun duten biktimak lagunduko ditu udalerrian ez dauden beste osasun baliabide batzuetara; adibidez, Nafarroako Ospitalgunera, kasuaren arabera. Osasun tratamenduak berehalakoa izan behar duenean, ahalik eta lasterren eraman beharko da ospitalera anbulantzian.

- ▶ Larrialdiko egoeretan, kasu larrietan eta bizia arriskua dagoenean, osasun esparruko baliabideek **Lesio Agiri** bat bidaliko dute nahitaez (Osasun Txostenarekin batera) Iruñeko kasuan kasuko Epaitegira. Lesioen agiria emakumeei jakinaraziko zaie eta ahalik eta zehatzena izanen da.
- ▶ Antsoaingo osasun esparruko edozein baliabidek lesio agiria prestatzen duenean, Osasun Etxeko gizarte langileari jakinaraziko zaio. Lesio agiria larrialdi zerbitzuan egiten denean, informazio hori Osasun Etxeko gizarte langileari jakinaraziko zaio beti.
- ▶ Ahal bada, agirietan lesioen argazkiak agertuko dira, informazio zehatzagoa eta kalitatezkoa emate aldera.
- ▶ Osasun esparruko baliabideek, egokia denean, biziraun dutenei azalduko diete osasun esparruko profesionalak Epaitegiari eman behar diotela gertakarien berri (era berean, susmoa baldin badago, edo emakumeen aurkako indarkeria aitortzen ez bada, Ministerio Fiskalari jakinarazi diezaioke), kontuan harturik informazioaren konfidentzialtasuna ez dela derrigorrezkoa, delituaren susmoa dagoen kasuetan edota osasun esparruko profesionalak lekuko edo aditu gisa deklaratzera deitzen dituzten kasuetan.

7. ESPARRUKA KOORDINATZEKO GAKOAK

7. ESPARRUKA KOORDINATZEKO GAKOAK






COORDINAZIORAKO TRESNAK

- ▶ **Genero Indarkeriazko Egoeran dauden Emakumeel Arreta Poliziala emateko Elkarlan Protokoloa eta VioGen.**
- ▶ **Antsoingo Udaltzalgoa:** gizarte esparruko erreferentziazko baliabide baten berri ematen die biziraun dutenei, baliabide horretara bideratzen ditu eta harekin koordinatzen da, hots, **Berdintasun Zerbitzua**.
- ▶ **Foruzalngoa eta Guardia Zibila:** gizarte esparruko erreferentziazko baliabide baten berri ematen die biziraun dutenei, baliabide horretara bideratzen dituzte eta harekin koordinatzen dira, hots, **Iruñerriko eta Iparraldeko AEIVa**.

Birbiktimizazioa murrizten da.
Arreta integralagoa da.
Poliziaren babesa eraginkorragoa da



- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria egoerak **atzematea**, eta biziraun dutenei nahiz haien seme-alabei **gizarte eta osasun arloko arreta** ematea.
- ▶ **Biziraun duten biktimen osasun egoeraren jarraipena egitea, erabat oneratu arte.**
- ▶ **Erantzun berehalakoa eta koordinatua** emakumeen aurkako indarkeriazko egoerei.

KOORDINAZIORAKO JARRAIBIDEAK ETA TRESNAK

- ▶ **Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren protokolo bateratuak emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean.**
- ▶ **Indarkeriaren aurrean esku hartzeko barne zirkuitu koordinatuak osasun ballabide bakoitzean.**
- ▶ **Berdintasun Zerbitzua:** Indarkeriaren susmoa dagoen edo arrisku apaleko balorazioa duten kasuen bideratze informatua. Hiru hilean behingo koordinazio bilerak.
- ▶ **OGZen MANKOMUNITATEA:** Hiru hilean behingo bilerak kasu komunak koordinatzeko eta haien jarraipena egiteko.
- ▶ **EAIV Iruñerria eta Iparraldea:** Indarkeria aitortzen den edo arrisku ertaineko, altuko edo muturreko balorazioa duten kasuen bideratze informatua. Hiru hilean behingo koordinazio bilerak. Lehen arreta Antsoingo Osasun Etxean edo Antsoingo Osasun Mentaleko Zentroan.
- ▶ **Polizlak:** Larrialdiko egoerak jakinaraztea, kasu larrietan eta bizia arriskuan dagoenean, eta sexu erasoak.
- ▶ **Deltuen Biktimel Laguntzeko Atala.** Indarkeria sexualetik biziraun dutenak eta seme-alabak bideratzea, egokia bada. Programa terapeutikoetan beren borondatez parte hartu nahi duten erasotzaileak bideratzea.
- ▶ **Epalteglak:** Derrigorrez eman behar da, bai Lesioen Agiria, bai Osasun Txostena, larrialdiko kasuetan edo kasu larrietan eta bizia arriskuan dagoenean. Larrialdi Zerbitzuan eman diren lesio agirien berri ematen zaio Osasun Etxeko gizarte langileari.

Birbiktimizazioa murrizten da.

Indarkeriari osasun publikoko eta norberaren osasun arazo bat bezala jotzen da

Biziraun duten biktimen erabateko oneratzeari errazten da, era integralean esku hartuta.

8. UDAL KOMUNIKAZIOA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN

8. UDAL KOMUNIKAZIOA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN

Antsoingo Udaleko barne komunikaziorako esparru bateratua azaldua dago atal honetan, emakumeen aurkako indarkeriazko kasuen aurrean. Puntu honetan ezarritako jarraibideak, gehienbat, udal politikarientzat dira eta honako hiru premisa hauek aintzat hartzen badira dute zentzua:

- A)** Informazio oro konfidentziala izanen da eta kasuan zuzenean ari diren langileek bakarrik jakinen dute nor diren biziraun duten biktimak, eta nor, haien erasotzaileak, betiere langileen beraien ardura profesionalaren arabera.
- B)** Biziraun dutenen, senideen edota haien hurbileko pertsonen baimena beharko da komunikazio ekintzak egiteko, haien erabakiak errespetatuta.
- C)** Antsoingo egoera; izan ere, herriaren tamainaren ondorioz, errazagoa da jakitea nor diren biziraun dutenak eta haien seme-alabak, eta horrek haien birbiktimizazioa eragin dezake, gertakariak isilpean gorde ezinaren ondorioz.

JARDUKETA PROZEDURA:

Lehena: Udaltzaingoak emakumeen aurkako indarkeriazko egintza baten berri duenean, protokolo honetan ezarritakoarekin bat jardungo da, arretari, babesari eta Antsoainen dauden beste baliabide publiko batzuetara bideratzeari dagokionez. Arriskuaren balorazioa muturrekoa denean edota udaltzaingoak -justifikatutako arrazoiak tarteko- kasua halaxe baloratzen duenean bakarrik jakinaraziko zaie gertakaria Alkatetzari eta Udalaren Berdintasun Zerbitzuari, biderik egokien bitartez (bilera, bide telematikoak, etab.).

Bigarrena: Gertakaria larria bada eta/edo emaitza emakumeen edota haien seme-alaben heriotza bada, berehalakoan emanen zaie horren berri udaleko politikariei eta kasuotarako dagoen prozedura jarriko da abian (aurrerago bildua dago).

Hirugarrena: Gertakaria herriko jaietan edo aisia gunen batean gertatzen bada, Antsoingo Udalak kasuotarako ezarria duen prozedura abiaraziko da:

Laugarrena: Gainerako egoerentarako (udalerrian gehienak dira), honakoari jarraikiz jardungo da:

- ▶ Udal politikariek emakumeen aurkako indarkeriari lotutako gertakari baten berri badute, eta hainbat arrazoi direla medio eta beren eskumen barnean, informazioa behar badu edo eskatzen badu udal baliabideak egoera horretan nola esku hartzen ari diren jakiteko, Berdintasun Zerbitzura joko du. Zerbitzu horrek jakinaraziko dio nola ari diren udal baliabideak kasuan jarduten, baina beti biziraun duten biktimen anonimotua gordeta, eta eman zaion informazioaren konfidentziasuna kontuan hartuta.
- ▶ Udal politikariek baldin badakite emakumeen aurkako indarkeriari lotutako egintza bat gertatu dela, eta udal baliabideek ez badute haren berri, Udaleko Berdintasun Zerbitzura joko dute, eta informazioaren konfidentziasuna errespetatuta, eta protokolo honetako prozeduren bidez, biderik egokienak erabiliko dituzte emakumeak eta haien seme-alabak arriskuan ez egoteko eta udal baliabideen arreta jasotzeko, baimena ematen badute.

8.1. UDALAREN ERANTZUNA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ERAGINDAKO ERAILKETEN AURREAN EDOTA BIZIRAUN DUTEN BIKTIMAK LARRIKI LESIONATURIK DAUDEN EGOEREN AURREAN

ANTSOINGO UDALAREN POSIZIONAMENDU PUBLIKOA: GAKOAK

- ➔ Udalak ez du inolako erantzun inprobisaturik emanen, harik eta informazioa erkatu eta egiaztatu arte, hedabideek edo herritarrek berek informazioa eskatuta ere.
- ➔ Egintzaren larritasuna eta oihartzuna ikusirik, pauso hori ahalik eta lasterren bukatu beharko da, Alkatezjak egintzaren berri duenetik aurrera.
- ➔ Horrelakoetan, Antsoingo Udala koordinatuta arituko da Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin. Institutuak, izan ere, berariazko protokolo bat dauka erakunde publikoentzat, emakumeen aurkako indarkeriak eragindako heriotzak edo larriki zauritutako biktimak gertatzen direnean nola jardun jakiteko.
- ➔ Antsoingo Udalak, erantzun publikoaren baitan, abian jarriko dituen neurrien berri emanen zaie biktimen senideei edo hurbileko pertsoneri, haiekin beraiekin adostuta.
- ➔ Antsoingo Udalak ez du emanen biktima bere ingurunearekin identifikatu edo lotu dezakeen informaziorik, haren intimitatea gordetzeko eta berriro biktima ez bilakatzeko. Horretarako, zer indarkeria mota eragin zaion edo pairatu duen jakiteko datu orokorrak bakarrik emanen dira, hartzen diren neurriak justifikatzeko beharrezkoa baita.

KOMUNIKAZIORAKO ESPARRU IBILBIDEA

- 1. Komunikaziorako Kudeaketa Mahai** bat eratuko da, Alkatezjak, Berdintasun Zerbitzuak eta Tokiko Poliziak osatua. Berdintasun Zerbitzuak Adierazpen Institutuzionalerako proposamena prestatuko du, Bozemaile Batzordeari aurkeztuko zaiona, onets dezan. Mahai hori udalaren informazio iturri bakarria izanen da beste eragile instituzional edo sozial batzuetarako.
- 2. Bozemaileen Batzordea biltzeko deialdia.** Adierazpena onesteko.
- 3. Osoko Bilkurarako deialdia.** Osoko bilkura horrek erabakiko du egintza arbuiatzeko kale-bilkura ofizialik egin edo ez, edota Udalak bat egiten ote duen beste erakunde, gizarte talde eta/edo herritarrek deitutako beste kale-bilkura batzuekin. Osoko bilkurak, halaber, erabakiko du akusazio partikular gisa agertzen ote den (erabaki hori atzeratu daiteke, kasuaren arabera) eta egintza arbuiatzeko zer beste ekintza egingen diren (adibidez, banderak masta erdian paratzea eta zenbat denboraz; gertakarien arbuioa udalaren webaren erdigunean paratzea, arbuioa sare sozialen bidez eta bestelako komunikazio-euskarrien bidez zabaltzea, etab.).
- 4.** Deialdi berezi bat egingen da udalerriko emakume elkarteekin eta talde feministekin biltzeko, udalak zer ekitaldi egingen dituen jakinarazteko.
- 5.** Idazkaritzak Adierazpen Institutuzionala helaraziko dio Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako gainerako Toki Entitateetara igor dezan, adierazpenarekin bat egin dezaten eskatze aldera.
- 6.** Alkatezjak eskerrak emanen dizkie herritarrei eta beste erakunde batzuei mobilizatu izanagatik, udal webaren bidez, Facebook eta beste erabiliz.

JARDUKETARAKO ESPARRU IBILBIDEAREN XEHETASUNA

JARDUKETARAKO IBILBIDEAREN XEHETASUNA, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK ERAGINDAKO ERAILKETEN ETA EGOERA LARRIEN AURREAN	
1.	Gertakaria Antsoaingo Udalean diharduen eta ikerketaz arduratu den polizia kidegoaren bidez baieztatzea.
2.	Biziraun duenarekin eta/edo haren senideekin harremanetan jartzea, kasua zein den, harekin elkarriketa izateko, helburu hauekin: <ul style="list-style-type: none">▶ Erreferentziatzeko gizarte esparruko baliabideen bidez egiaztatzea edo bermatzea berehalako erantzun profesionala ematen ari zaiela gertakaritik erator daitezkeen beharrei (juridikoak, psikologikoak, baliabide eta laguntzei buruzko informazioa, seme-alabak artatzea, etab.).▶ Biktimaren edo familiaren baimena eskatzea, udalerriak gertakaria arbuiatzeko jarduketa publikoak egiteko (haien denborak eta egoeraren bizipena errespetatuta).
3.	Udalaren Osoko Bilkura bereziko deialdia egitea , emakumeen aurka izaniko indarkeria arbuiatuko duen testu bat onesteko eta huraxe gaitzetsiko duen kale-bilkura bat deitzeko (edo beste deialdi batzuekin bat egiteko). Bilkura horretan erabakiko da Antsoaingo Udala zigor-prozeduran agertzen ote den herri akzioa gauzatzeko; erabakia unerik egokienean jakinaraziko zaio biktimari edo familiari bere onespina izateko (ez da beharrezkoa biktimaren edo familiaren baimena herri akzioa gauzatzeko).
4.	Nafarroako Berdintasunerako Institutura joko da jarduketak koordinatzeko.
5.	Gertakaria arbuiatzeko kale-bilkurarako deialdia/atxikimendua , udal bandoaren, iragarki-oholtzaren, webaren eta herriko emakume elkarten eta talde feministen bidez. Deialdian, udalaren osoko bilkurak onetsitako testua irakurtzen ahalko da. Gertakariaren berri izan eta lehen 24 orduetan eginen da deialdia, betiere gertakariaren benazko informazio ofiziala eta nahikoa bildu bada.

ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

- ▶ Antsoaingo Udalak erantzun publiko instituzionala gidatuko du.
- ▶ Kasuotan ezinbestekoa da Udalak emakumeen aurkako indarkeria arbuiatzea.
- ▶ Beti bermatuko da bai gertakariaren konfidentziasuna, bai emakumeen nahiz haien seme-alaben anonimata, emakumeek eta senideek hala eskatzen dutenean.
- ▶ Emakumeen birbiktimizazio oro saihestuko da, hedabideetako informazioaren ondorioz gerta daitekeena.

TESTU OFIZIALETAN EMAN BEHARREKO MEZUEN EDUKIAK

- ▶ Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria dela nabarmentzea, erantzunik gabe ezin gelditu daitekeena.
- ▶ Gertakariak honela aipatzea: "emakumeen aurkako indarkeria", "indarkeria matxista", "emakumeen aurkako indarkeria matxista" edo "indarkeria sexista".
- ▶ Ez erabili honelakoak: "pasiozko krimena", "gaitza", "bikote barneko indarkeria", "etxeke indarkeria", "homizidioa", "tratu txarrak".
- ▶ Emakumeak erruduntzat ez jotzea, eta indarkeria inola ere ez justifikatzea.
- ▶ Ez eman informaziorik emakumeen jatorriaz, etniaz, egoera pertsonalaz, familiarraz edo lanekoaz, ezta seme-alabez ere (seme-alabarik baldin bada).

9. PROTOKOLOA KUDEATZEKO SISTEMA

9. PROTOKOLOA KUDEATZEKO SISTEMA


Protokoloaren kudeaketa-sistema zehaztea ezinbestekoa da huraxe ezarriko bada. Protokoloa koordinazio hobetzeko tresna bat denez, tresna nola kudeatuko den azaltzeak haren betekizuna bermatzea ahalbidetuko du.

Protokolo hau kudeatzeko ereduak lau osagai ditu, laurak ere funtsezkoak, proposatzen den esku-hartzea garatzeko:

1. Esku-hartzeak hemen azaldu diren **arau eta programetatik** abiatuta bideratuko dira, bai eta EIFLa **gizatzen duten Printzipioetatik** abiatuta ere.
2. Behar bezalako **egiturak** osatu behar dira, Protokoloan parte hartzen duten baliabideen arteko koordinazioa eraginkorra izatea ahalbidetzeko eta beste eragile batzuek protokoloan ere parte hartzea eragiteko.
3. Protokoloan egiten diren **jarduketaren plangintza, jarraipen eta ebaluazio sistema bat** diseinatuko da.
4. Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jardunaren bilakaera eta hobekuntza etengabea, hala Nafarroan, nola Antsoainen, bai eta protokoloan parte hartzen duten baliabideen barnean gertatzen diren prozesuak ere, edota Protokolo hau prestatu den unean aurreikusteko modukoak ez diren egintzak gertatzeko aukera. Horren ondorioz, kudeaketa-eredu **malgua, ebaluagarria eta moldatzeko edo doitzeko modukoa** diseinatu beharra dago, bi urterako lan-planetatik abiatuta, geroago zehaztuko den bezala.

Protokoloan identifikatuta daude zer xedapenek orientatzen duten udal jarduna emakumeen aurkako indarkeriaren arloan; horrenbestez, ondoren garatuta dago zer beste elementutan dagoen oinarrituta proposatu den kudeaketa-eredua, bi gauza nabarmenduta, betiere: batetik, zer egiturak ahalbidetuko duten protokoloan parte hartzen duten baliabideen arteko koordinazioa, eta bestetik, haren baitan abiaraziko diren jarduketaren plangintza, jarraipen eta ebaluazio sistema.

9.1. PROTOKOLOA KOORDINATZEKO, KUDEATZEKO ETA HARTAN PARTE HARTZEKO EGITURAK



EGITUREN ETA HAIK PROTOKOLOAN DITUZTEN EGINKIZUNEN DESKRIBAPENA

► TOKIKO KOORDINAZIO MAHAIA

Mahaiaren eginkizunak Akordioaren testuan daude zehaztuta. Zehazki, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan esku hartzen duten eta, aldi berean, arreta-sare publikoan sarturik dauden profesionalen bilgunea da, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan koordinatzeko, lankidetzan aritzeko eta prebentzio, detekzio, babes eta esku-hartzeari loturiko jarduketak garatzeko. Mahaiak ahalbideturik, emakumeen aurkako indarkeriarentzako erantzuna Antsoaingo egoerara egokitua egonen da.

Azaldutako eginkizunez gain, eta kudeaketa-ereduaren baitan, honakoak dagozkie bereziki Mahaiari:

- ⇒ Lan-lehentasunen identifikazioa eta protokoloaren baitan esparru guztietarako garatuko diren jarduketak onestea (bi urterako lan-planak).
- ⇒ Urteko estatistika-informazioa biltzea, aurrez zehaztutako aldagai komun eta bateratuen bidez, emakumeen aurkako indarkeriak Antsoainen duen jarduketaz eta eraginaz. Informazio hori protokoloaren urteko jarraipen txostenetan sartuko da.
- ⇒ Lan txostenen onespena (bi urterako lan-plana eta urteko jarraipen txostenak) eta plana protokoloaren prestaketan baliozkotzea.
- ⇒ Sare publikoan emakumeen aurkako indarkeria artatzeko diren beste baliabide batzuetara helaraziko diren gorabeheren txostenak proposatu eta onestea.

Aurreikuspenen arabera, Tokiko Koordinazio Mahaiak **urtean bi aldiz egingen du bilkura arrunta**. Gainera, edozein kidek eskatuta, bilkura bereziak egin ahalko ditu. Antsoaingo Berdintasun Zerbitzua izanen da Mahaiburua, eta hark ere, deialdiaz gain, lan bilkuren akta egingen du.

► TALDE TEKNIKOAK

Bi urterako lan-planetatik abiatuta, lan-talde teknikoak osatzen ahalko dira, eskaeraren arabera, lehentasunezko jarduketetan sakontze aldera. Talde horietan, Mahaiko kideez gain, Antsoaingo beste eragile instituzional, ekonomiko edota sozial batzuek parte hartzen ahalko dute, bai eta herritarrek ere. Talde horiek ez dute izaera iraunkorrik izanen, eta aurreikuspenen arabera, deseginen dira, behin taldea osatzeko helburua betetakoan.

► ANTSOAINGO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUA

Protokolo honen baitan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egiten den jarduketa koordinatzea dagokio Udaleko Berdintasun Zerbitzuari. Lan horretatik datozen eginkizunez gain, honakoak ere Berdintasun Zerbitzuaren ardurapean daude:


- ⇒ Bi urterako planak prestatzea, bai eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko prestakuntza-plana ere, plan horiei eraginkortasunez erantzute aldera, betiere Tokiko Koordinazio Mahaian diren gainerako kideek emandako informazioa abiaburu harturik.
- ⇒ Protokoloaren urteko jarraipen txostenak egitea, barne dagoela emakumeen aurkako indarkeriak udalerrian duen eraginari buruzko nahiz hari aurre egiteari buruzko analisi kuantitatiboagoa. Tokiko Koordinazio Mahaian diren gainerako kideek emaniko informazioa abiaburu harturik ere egingen da txostena.
- ⇒ Gorabeheren prestaketa arazoitua.
- ⇒ Protokoloaz egiten diren kanpo ebaluaziorako txostenak bultzatzea.

► BERDINTASUN BATZORDEA

Udal talde politiko guztiak ordezkaturik dauden gunen horri protokoloaren baitan zer lan egiten ari den jakitea dagokio, eta era berean, arreta egokiaren printzipioarekin bat, behar adina diru baliatzea Antsoaingo Udalaren eskumenen baitan urtero egingen diren ekintzak abiarazteko.

9.2. PROTOKOLOAREN PLANGINTZA, JARRAIPEN ETA EBALUAZIO SISTEMA

Hobekuntza etengabea oinarritutako esku-hartzearen baitan, Protokoloa garatzeko ziklo osoa barnebilduko duen lan-metodologia proposatzen da, hau da, kontuan har dezala bai hura abian jartzea, bai jarduketan plangintza, zehaztapena eta gauzapena, haien jarraipena eta, azkenik, ebaluazioa. Horretarako, honako lan-sistema hau proposatzen da, geroago azaltzen dena:



► PROTOKOLOA EZARTZEKO BALDINTZEN GARAPENA

Protokoloa onetsi, indarrean sartu eta berehala, huraxe ezartzeko baldintzak garatuko dira. Lan hauek dira, zehazki:

- ⇒ Tokiko Koordinazio Mahaia eratzea. Mahaikideen izendapen ofiziala.
- ⇒ Barne komunikaziorako plan bat prestatzea udalerako, eta kanpo komunikaziorako beste bat, Antsoainerako eta beste gune garrantzitsu batzuetarako, Protokoloa hedatze aldera. Jarduketa hori funtsezkoa da aliantzak sortzeko eta interes talde guztiekin sintonian lan egiteko.
- ⇒ Lan lehenetsuen identifikazioa 2020-2021. urterako, Protokoloak ezarri dituen konpromisoetatik abiatuta.

► PLANGINTZA ETA PROGRAMAZIOA

Aurreko fasea abiaburu harturik, bi urterako jarduketak planifikatzen eta programatzen hasiko da. Horretarako, Tokiko Koordinazio Mahaiko kideek bi urterako beren plangintza prestatu eta Berdintasun Zerbitzura igorriko dute, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko udal plangintzarako proposamen bateratua egin dezan **(bi urterako plana)**. Bi urterako lan proposamenaren arabera, baloratuko da udal lan talde bat ad hoc deitzeko beharra proiektu zehatz bat garatze aldera.

Plangintzaren eta programazioaren denboralizazioari dagokionez, esan behar da, Protokoloa ongi ezarriko bada, Koordinazio Mahaiak baliozkotu eta aurrekontuetan bildu beharko dituela jarduketan lehenespena eta bi urterako lan-plana, udal aurrekontuak onetsi baino lehen.

Honako prozesu honi jarraituko zaio bi urterako lan-planak diseinatzeko:



► GAUZAPENA ETA JARRAIPENA

Fase hau Protokoloaren bi urterako lan-planetan aurreikusita dauden jarduketak garatzeari dagokio. Jarduketak gauzatzen diren neurrian, koordinaziorako aurreikusita dauden egiturak doitu eta zedarrituko dira, bai eta jarduketak garatzeko sortu diren prozesuak ere, eta jarduketetako edukia bera ere bai.

► JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Protokoloaren jarraipen eta ebaluazio sistemak zentzua du, baldin eta bi urterako lan-planak garatu egiten badira. Horregatik, proposatu den sistemak, emaitzak ebaluatzeaz gain, ebaluatu ere egingen du Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren arloaren koordinazioa hobetzeko duen eragina. Gainera, protokoloaren ebaluazioak instrumentu egokia izan nahi du, Udalak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan egiten duen lanaren gardentasuna, kontu-ematea eta komunikazio iraunkor eta eraginkorra bermatzeko.

PROTOKOLOAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO TRESNAK ETA IRIZPIDEAK

A) ADIERAZLE-SISTEMA BATEN DISEINUA

Jarraipena eta ebaluazioa egite aldera, **gauzapena, jarraipena eta eragina neurtzeko adierazle-sistema** bat erabiliko da, bai adierazle kuantitatiboak, bai kualitatiboak. Adierazle oso gutxi erabiliko da, baina asmoa da estrategikoak izatea, hau da, informazio garrantzitsua eman dezatela Protokoloaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

GAUZAPEN-ADIERAZLEAK (PROTOKOLOAREN JARRAIPENA)

Adierazle-sistema hori abian jartzeak ekintzak noraino bete diren jakiteko aukera emanen du, eta horrez gain, ekintzei segida emateaz hausnartzeko bidea eta behar berriak identifikatzeko parada.

PROZESU-ADIERAZLEAK (PROTOKOLOAREN JARRAIPENA)

Protokoloa ezartzeko prozesuari jarraipena emate aldera, bi urterako lan-planen bidez, honako eta gisako kontuak aztertuko dira:

- ⇒ Abian jarri diren ekintzen garapen maila.
- ⇒ Ekintzak eta proposatutako irtenbideak garatzeko aurkitu edo hauteman den zailtasuna.
- ⇒ Protokoloa ezartzeko prozesuan txertatu diren hobekuntzak.
- ⇒ Protokoloa ezartzeko abian jarri diren giza eta antolaketa baliabideak, bai eta baliabide teknikoak eta materialak ere.
- ⇒ Baliabide guztiek protokoloarekin duten konpromisoaren maila.
- ⇒ Protokoloan zehazturiko egituren operatibotasuna koordinazioa errazteko.

ERAGIN-ADIERAZLEAK (PROTOKOLOAREN EBALUAZIOA)

Protokoloaren eragina 4 urtez behin ebaluatuko da, hura abian jarri denetik aurrera. Ebaluazioa egite aldera, hainbat gauza hartuko dira kontuan adierazle-sistema baten bidez, gauza hauek, zehazki:

- ⇒ Protokoloak erantzunik eman ote dien Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren arloa koordinatzeko beharrei.
- ⇒ Aurrerapausorik izan ote den, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra ezarri den arreta-ereduan genero-ikuspegia txertatzeko, EIFLan ezarritakoarekin bat.
- ⇒ Lagungarria izan ote den indarkeriatik biziraun duten biktimen birbiktimizazioa murrizteko eta biktima guztien osoko arreta bermatzeko, haien oneratzeko prozesuan.

B) JARRAIPEN ETA EBALUAZIO TXOSTENAK

Ebaluazio etengabearen oinarriturik, eta adierazleek emanen duten informazioa kontuan harturik, honako txosten hauek prestatuko dira:

URTEKO JARRAIPEN TXOSTENAK

Udaleko Berdintasun Zerbitzuak bi urterako lan-planen jarraipena egiteko txosten bat egingen du urtero. Txosten horrek, gainera, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren arloan burutu den arretari buruzko informazioa barnebilduko du. Txosten horiek ematen duten informazioa hurrengo programazio-epealdiaren abiaburua izanen da.

EBALUAZIO TXOSTENA

Lau urtez behin, Protokoloa ebaluatzeko txosten bat egingen da, eta Protokoloaren garapenean ari diren baliabide guztiek parte hartuko dute, bai eta Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriatik biziraun dutenek ere.

10. PROFESIONALENTZAKO BALIABIDEEN MAPA

10. PROFESIONALENTZAKO BALIABIDEEN MAPA

KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIO OROKORRA: ANTSOAINGO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUA

**BALIABIDE PUBLIKOAK
ANTSOAINEN
EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIA ARTATZEKO**

**LARRIALDIKO EGOERAK EDO LARRIAK:
112 TELEFONOA SOS NAFARROA**
Telefono horren bidez, jarduketak koordinatu, eta behar duten laguntza ematen zaie bizirauten duten biktimei (poliziala, medikoa, juridikoa, psikologikoa, ostatua, etab.).

SOZIALAK

ANTSOAINGO UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUA:
Mendikale 6-8, 1. Solairua, Antsoain.

Tel.: 948-384048

OGZen MANKOMUNITATEA:
Udaletxe plaza 3, behe solairua, Antsoain.

Tel.: 948- 132207

EAIV IRUÑERRIA ETA IPARRALDEA:
Etxaburua k. 27, Berriozar. Tel.: 608313533

POLIZIALAK (24 ORDUETAN)

ANTSOAINGO UDALZAINGOA:
Udaletxe plaza 1, Antsoain.

Tel.: 948 382 240 / 609 419 444

FORUZAINGOA: Fuente de la Teja zk.g. Iruña.

Tel.: (Laguntzarako Brigada): 848-426403

GUARDIA ZIBILA: Galizia etorbidea 2, Iruña.

Tel.: 948-296850 (luzapena 5260 EMUMErako) eta 062

JURIDIKOAK ETA JUDIZIALAK

SAM (Emakumeendako laguntza juridikoko zerbitzua): Etxaburua k. 27, Berriozar.

Tel.: 948 004 952 eta 948 004 953 (aholkularia, aurrez hitzordua eskatuta)

SAVD (Delituaren Biktimei Laguntzeko Bulegoa): Iruñeko Justizia Jauregia. Epaitegi Dekanoaren aurrean. Elio epailearen plaza 1, behe solairua. Tel.: 848423376, 848421387 eta 848427671 (aholkularitza telefonikoa eta aurrez aurrekoa, hitzordua eskatuta).

OSASUNA

OSASUN ETXEA: Ostoki k., 16, Antsoain.
Tel.: 948 136250

OSASUN MENTALEKO ZENTROA:
Ostoki k., 16, Antsoain. 1. solairua.
Tel.: 948 139055

BALIABIDEEI BURUZKO ARGIBIDEAK
PROFESIONALENTZAKO GIDA NAFARROAN, EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN BATERA JARDUTEKO PROTOKOLOA

SIGLEN, AKRONIMOEN ETA BESTE ERREFERENTZIA BATZUEN ZERRENDA

SIGLEN, AKRONIMOEN ETA BESTE ERREFERENTZIA BATZUEN ZERRENDIA

Erakundeen arteko III. Akordioa	Erakundeen arteko III. Akordioa, Nafarroan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean koordinatzeko
ATENEA	Osasun Historia Sozial Batua
ATENPRO	Genero-indarkeriaren biktimak artatu eta babesteko Telefono Zerbitzua
EAIV	Genero-indarkeriaren biktimei oso-osoko arreta emateko taldeak
HCI	Historia Kliniko Informatizatua
INAI/NABI	NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA
EIFL	14/2015 Foru Legea, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa.
1/2004 LO 1/2004 Lege Organikoa	1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
TKM	Tokiko Koordinazio Mahaia
OGZM	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
SAM	Emakumeendako Laguntza Juridikorako Zerbitzua
SAVD	Delituen Biktimei Laguntzeko eta Organo Judizialekin Aritzeko Atala. Nafarroa (Halaber, Delituen Biktimei Laguntzeko Bulegoa)
SIUSS	Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileendako Informazio Zerbitzua. Oinarrizko datuak biltzeko aukera ematen du esku-hartze profesionala egiteko.
EULZ	Emakumeendako Laguntza Zerbitzua. Iruñeko Udala.
OGZ	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak
Biziraun dutenak	genero-indarkeriatik biziraun dutenak emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak dira, jasandako indarkeria gainditzeko oneratzeko prozesuari ekin diotenak.
Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak	Emakumeen kontrako indarkeriaren biktima dira EIFLan bortxazko ekintzen ondorioak zuzenean pairatzen dituzten emakumeak, bai eta indarkeriazko ingurunean bizi diren seme-alabak ere, egoera ahulean egoteagatik indarkeria hori zuzenean jasaten dutenak.
VioGen	Segimendu Integralerako Sistema Genero Indarkeria izan den kasuetan (VioGen Sistema). Barne Ministerioko Segurtasunerako Estatu Idazkaritza.

TOKIKO II. PROTOKOLOA, ANTSOAINEN EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN AURREAN JARDUNA KOORDINATZEKO



Ayuntamiento de Ansoáin
Antsoaingo Udala

